



ALKIZAKO HERRI ALDIZKARIA 20. ALEA

Oilategitik

2020

20 urte Oilategitik kakaraz!



Editoriala

- 3 Gure aipamenak izango dira...

Mendiolatik

- 4 Bitxo. MANU URRUZOLA ARANZABE

Alkizakoak

- 8 Bitxikeriak. JOSE MARI ARANZABE "PEPE"
9 2019. urtean jaiotako haurrak
10 Ikasle berriei ongi etorria Alkizako eskolara ALKIZAKO ESKOLA
11 Ongi etorriak Alkizara JOSE MARI ARANZABE "PEPE" eta IMANOL LIZARDI

Alkizako eskolatik (Alkizako eskola)

- 12 Badugu "oilategi" berria
13 Langileak gara etxean ere
14 Seigarren mailakoen idazlanak
16 Seigarren mailakoei agurra

Pentsamendua eta fikzioa

- 17 Pentsatzea, sentitzea, libre, denon eskubide. IXIAR IRULEGI
20 Mendikoetxeko leihotik: berrogeialdiko zenbait testu. XABIER ARTOLA ZUBILLAGA
22 Bizipenak. IXIAR IRULEGI
23 Gutariko bakoitza oroit. SHRABANI ARANZABE
24 Mendien atzeko eguzkia. AITOR IRULEGI

Antzinetatik

- 26 Alkizako hidalgoak. JOSE MARI ARANZABE "PEPE"
28 Juan Domingo. PELLO JOXE ARANBURU
29 Nirea nahi dut. ENRIKE LARRARTE

Aurten

- 32 COVID-19arentzako gutuna. JUAN BAUTISTA ARANZABE "MATE"
34 Bi artista elkarlanean: Unai eta Markox. IMANOL LIZARDI
38 Alkizako Kabia Gunea. EDURNE AYUSO

Gure piztiak

- 40 Sexuaren argia. INAKI IRAZABALBEITIA

Natura

- 42 Baina, nortzuk gara gizakiok benetan? AINHOA JAUREGI OTAÑO

Azala eta kontrazaleko argazkiak: © XABIER ARTOLA ZUBILLAGA

TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.M.

Argitaratzailea: GFA

Tirada: 800

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Helbidea: San Esteban auzoa, 20. TOLOSA

Kontaktua: 943 65 56 95 - tkt@ataria.eus - oilategitik@gmail.com

Webgunea: www.ataria.eus - www.oilategitik.net

Alkizako Oilategitik Kultur Elkartearen lantaldeak bultzatutako eta landutako publikazioa

Gure aipamenak izango dira...

Urtero-urtero iraileko hitzorduari hutsik egin gabe hogeigarren aldiz etorri gara zuregana irakurle. 2001eko irailean, herriko festetarako hain justu, ikusi zuen lehen aldiz argia Oilategitik aldizkariak. Ibilbideari ekin genionean ez genekien kamioa nolakoa izango zen, erraza eta egingarria edo, horrelakoren batean gainditu ezinezko oztoporen batekin estropezu egingo genukeen. Honelako gogoeta egin genuen aurreneko alearen diosalean.

'Aldizkari honen lehenengo prestaketan jardun dugunok badakigu halako proiektuek, aurrera jotzeko, bi erronka handi gainditu behar dituela. Bata aldizkariaren geroari dagokio. Aldizkari honen etorkizuna alkizarren eskutan dago, zeren halako proiektuak ezin baitu aurrera jarraitu alkizarrek berek ez badute aldizkariaren prestakuntza parte zuzena hartzen. Herritarren erantzun baikorra beharrezkoa da Alkizako aldizkari honen urteetan zehar segida izan dezan.'

Herritarrek bere egin zuten proiektua eta, ondorioz, bizirik segitzen du. Diosala horretan aipatzen den bigarren erronka gastuak berdintzearena zen. Uste baino xamurragoa izan da. Alkizako udalak, hasiera-hasieratik, eta Gipuzkoako Foru Aldundia geroxeagotik lagundu digute gastuak berdintzen. Doakie bi erakundeoi gure eskerrik zintzoenak!

Hogei ale hauetan Alkizako historiako une eta pertsona jakingarriak biltzen saiatu gara. Horri herrian gertatutakoaren kronika erantsi nahi izan diogu eta azkenik herritarren kezka pertsonalei ere agertokia eskaini nahi izan diegu. Historia handia eta txikia bildu dugu. Anbrosio Bengoetxea edo Joan Irazusta moduko herriko seme ospetsuen berri eman dugu, baina aldi berean, herria den bezalakoa egiten duten historia txiki horiek, jende soila protagonista dituztenak, ere tokia izan dute. Hemendik 100 edo 200 urtera baten batek Alkizan gertatutakoaren berri izan nahi badu Oilategitiken orrialdeak izango ditu, seguruenik, informazio-iturri oparoa. Horrek bakarrik justifikatzen du orain arte egindako ahalegina eta lana.

Esker onekoa izatea gizalegea denez beren lanarekin aldizkaria posible egin duzuen guztioi eskerrak eman nahi dizuegu, inoiz artikuluren bat eskribitu duzuenoi zein urtez urte luma zorrotzu eta ekarpena egin duzuenoi. Denak izan zarete beharrezko eta inportante. Hazia erein zutenak ere merezi dute aipua eta esker ona. Pepe, Pello Joxe, Kepa eta Eujenio aipatzen dira lehen alean koordinatzaile moduan eta Muñozabal ideiarren habiatzat. Eskerrak eta graziak zuoi!

Txirrita handiak *'nire aipamenak izango dira beste laurogei urtian'* kantatu zuen bere garaian. Eta baita asmatu ere! Laurogei askotxo izan daiteke orain desafioa botatzeko eta beste 20 ale publikatu ditugula zelebratzearekin konformatuko gara, oraingoz behintzat. Irakurle eta idazle bidaide izan zaituztegu kamio horretan!



Bitxo

Aurreko urteetan ere garaitu hauetan edo izaten nauk urteroko ia obligaziozko baina gustoko lerro hauek idazten eta aurtengo urtea nola doan ikusita pixka bat beranduxeago arte itxaron diat ea zer nola doan ikusteko, entzuteko, sentitzeko, ... ukitu eta gozatu ia ezin den honetan eta hau argitaratzerako ere auskalo zertan garen baina... Hara hi, etzekiat nolatan, zertara, zergaitik, nondik etorri haizen, eta ez nian hiri idazteko asmorik aurtent baina hainbat duda muda izan ondoren aurtent hiri idatziko diat (betiko estiloa berreskuratuz).

Esan bezala eta izen abizenekin hatorren arren ezezaguna haut, baina hi, aitortu behar duk indartsua izan dela hire aurkezpena, hire sarrera bortitza; egurrean, zuzenean, tinko, kupidarik gabe, haserre antzean labur esateko. Aitortuko diat, etzekiat nola esan baina apur bat merezita genuela ere ez diat esango, ongi etorria haizela ere ez, laguna hautela ere ez noski, baina perkatxa, alua, beldurgarria, eta

Herriko txoko polit bat Hernio bidean.

© Nagore Arizeta Garmendia

batipat boteretsua eta pozoitsua haizela, hortan bai ez dudala dudarik. Aurretik aipatu bezala hiri idatzi edo ez izan dizkiat zalantzak eta esango diat zergaitik. Urteroko idatzi honen lehen ohar txo, ideia edo pentsamenduak lehengo urte amaieran eta aurtengoaren hasieran egin nizkian, non aipatzen nian eta lekuko bat badiat planeta honetan halakoren batean hondamendiren bat gertatuko zela horrela jarraituz gero gizakiak. Ez nian hirekin kontatzen hori aipatzerakoan, beste mota bateko zorigaitz edo eraso bat espero nian baina gauzak nola diren, hi azaldu bitxo. Horregatik hiri ariko nauk aurtengoan, tartean hainbat hausnarketa, entzundako kontu, ikusitako eta iritzi aipatuz. Batzuk esan bezala besteenak, beste batzuk neureak eta gehientsuenak serio edo tristeak izan arren tartean batzuk nola ez, umorez.



“Hemen gaude ta poztutzen naiz...” zioen Itoitzen abesti ezagun batek. “Hemen gaude” eman zion izena Ken Zazpi taldeak bere abesti zoragarri bati. Hemen gaude bai, baina nola gaude? “Ka-ka-la-rrin” da lehenengo bururatzeko zaidana edo erantzuna. Beldurrez, ezjakinean, haserre, kexu gaudela ere ziurra da, baina lotsati, pekatari edo arduradun ez. Birus, bitxo alu baten ondorio gaude bai, baina noren edo zeren ondorio ote? Gure ondorio? Gizakiaren ondorio? Agintarien ondorio?

Pertsonai ezagun batek esan duen bezela ez ote da izango bizitzak aurrera jarraitzen duela gu gabe ere (ez garela beharrezkoak) eta mezu bat bidali nahi digula ez garela jabeak baizik gonbidatuak esanez.

Zer eskubide du bada gizakiak planeta lurrez eta airez horrela kontaminatzeko?

Lehen aipatu bezela beste batzuei entzundakoak dira lerro hauetan eta hona beste batzuk.

Gure aurreko belaunaldiekin alderatuta, gauza guztiak lortuta eta bizimodu eroso dugunean, heuren lortzeko ahalegina egin zutenak guk kapritxo ez ote ditugu bada egiten? Nahita gosea pasa, nahita hotza pasa, nekatu nahita, nahita arriskua bilatu...

Esan liteke orduan orokorrean ongi bizi garela. Jan-edan faltarik ez, urtero oporretara, neguan eskiatzera, armairua bete arropa, auto eta etxe ederrak (askotan bat baino gehiago) eta beste hainbat eta hainbat adibide. Hau guztia adierazten duen eta noraino iritsi garen erakusten duen adibidetxo bat besterik ez. Ba, ostirala iritxi eta 30€tako hegaldi batean Londresera asteburu pasa joatera heldu gara, zertara eta praka pare bat erostera. Eta hori ez eta ez!!

Kutsatu eta hildakoen zerrenda gora ta gora hasi zenean konfinamendua edo itxialdia iritsi zen. Alegia, etxealdia. Ene ETXEALDIA! Hau ere ezagutu dugu bizialdi honetan, zaharrok, gazteok eta haurrok. Eta haurrak aipatu behar eta baita goraiatu ere, zer horixe, haurrak izanik berriek eman duten adibidea, ba garbi esanda benetako adibidea eman dute.



Balkoietako ikuskizunak konfinamendua arintzeko.
©Artxiboko irudia



Ikuspegi paregabea Zopiteko kobazulotik.
©Juanma Iraola Eloseggi



Honek ere argazkian atera nahi nonbait.

©Juanma Iraola Elozegi

Badakigu etxealdi-itxialdi honetan zer egin dugun eta zer ez, eta zer egitea izan dugun eta zer ez etxetik kanpo baina halere esan behar gurea bezalako herri txikietan ez dela horren zaila izan etxean egotea beste herri eta hiri batzuekin alderatuta.

Etzeratze edo konfinamendu honetan ezer positiborik aipa baleike agian telelana izan dela esan behar eta etorkizunean praktikara eraman beharko litzatekeela. Bestea, jendeak sormenerako duen gaitasuna. Zer ez ote dugu egin bi-hiru hilabete horietan norbere etxeetan. Aspalditxoan egin gabe genituen hainbat eta hainbat ekintza edo etxeko lan alde batetik. Beste aurkikuntza balakoa izan da (dutenak) zalantzarik gabe. Honetan ere zer ez ote dugu egin pentsatzen jarrita (beste etxealdirik balitz ziur ez genukeela berdin egingo). Halere bat aipatzekotan iluntzeko zortziretan egunero egiten zena gogoratzea. Osasun langileei txalo jotzera irten. Eta bai, ados izugarritzko lan neketsua (eta arriskutsua) egin dutela baina, horixe, beraien lana betetzen ahalik eta ongien ezta? Akaso ez ote dute bizia arriskuan jartzen eta lan duina egiten hilabeteak itsasoan pasatzen dituzten arrantzaleek? edo meatzariak? edo teilatu ertzean lanean ari diren igeltseroek? edo suhiltzaileak? Behar bezala balioetsi ote dugu inoiz eta eskertu egunero etxera ogia ekartzen duen okina? edo artzain edo abeltzaina? Adibide gutxi batzuk dira hausnarketarako bide ematen dutenak eta agian beste zerbait egin beharko genuke benetan mediku, erizain eta osasun langileek egiten duten lana eskertzeko.



Begibistan Alkizako argi-indar zentrala.

©Alaitz Errexil Garmendia

Beste kontu interesgarri bat herri eta hiri txikietako denda eta komertzioena izan da pandemia edo bitxo honen ondorioz sortu den egoera arraro honetan eta behar bezela eskertzeko eta balioesteko izango al zen behintzat. Aipamen txiki eta berezia guri dagokigunez Alkizako Ostatuko jabeak hartu zuen erabakia hasiera hasieratik etxera eramateko janaria prestatzea. Ez daukagu horren zaila eskertzen eman duen zerbitzua. Beste hausnarketa bat eta hau ere gure herriari lotuaz ea ez ote dugun denda txiki baten premiarik gurean. Ikusirik inguruko herrietan funtzionatzen duela eta lanpostu bat edo beste sortu litzazkeela...

Bertako eta inguruko kontuak atera direnez ea aurtengo uda ondo amaitzen dugun. Lasaitzen, arintzen eta erlaxatzen goazen heinean ez ote gara ia normaltasun osora etorriko eta xabartuko. Jai eta ikuskizun gehienak bertan behera geratu direnez eta oporretara ere ez urrutira joateko gomendioa egin dutenez inguruan eta bertan ezagutzen ez ditugun leku eta parajeak ezagutzeko probexu dezagun. Herritik bertatik hasita. Honen inguruan badut kontutxo bat behin gizon batek esan zidana: "Ziur batean eta bestean ibili zarela eta Alkizako argi-indar zentrala ez duzula ezagutzen" zihoen. Eta bai, hortxe hortxe arrazoi zuela eta baditugu herrian hainbat toki edo txoko ezagutzen ez ditugunak. Orain aipatutakoaz gain Zopiteko kobazuloa, bi horien inguruan dagoen ur saltoa, Ur Mara museoa,... Zerbaitegatik abesten zuen Laboak maite zituela gure bazterrak.



Kaleak musukoz beteriko irudi pentsaezina.

©Alaitz Errexil Garmendia

Eta amaitzeko politikariei buruz zer esan konfinamendu honetan izan duten portaerari buruz. Bada gehienetan eta gehienak bezela ez direla behar den neurrian aritu. Larrialdi, kakalarri eta izuaren lehen hamabost egunetan ematen zuen bat egingo ote zuten eta joera aldaketaren bat etorriko ote zen baina bai zera, pandemia arintzen joan den heinean lehengo lepotik dutela burua erakutsi dute. Setati, temati jarraitzen dute hainbat eta hainbat eztabaida antzu sortuz. Eta sindikalgintzako sektoreari buruz antzeko iritzia izan da jendearena, agian okerragoa gainera (eta nahiko iritzi orokorra). Bien bitartean janaria lortzeko hileroko hileroko gero eta ilara luzeagoak eta bi mila milioi pertsona munduan etxeetan urik gabe. Bi adibide bakarrik beste hainbaten artean guztia adierazten dutenak. Guzti honetan tristeena hil diren milaka eta milaka pertsona, gehienak adineko jendea gainera jakinik giza-kiak sorturiko birusa izan dela. Ea ahalik eta azkarren sortzen duten txertoa eta amaitzen den amesgaizto hau. Jar dezagun zientzilariengan gure konfiantza guztia. Animo eta eutsi goiarri!!

Beno bitxo, egin duk aberia ederra eta egiten jarraitzen duk baina umorez agurtu nahi haut. Agurtu esan diat bai, ezkutu xamar egon arren berriro ere agurtu haiz eta jarraitu nahi dukela ematen duen arren, erabat ezkutatzea duk denon nahia eta hirekin batera Fernando Simon eta Nekane Murga ere bai, ze bere txarrean Arantxa Tapia ikusten jarraitzea

hobe dugula uste diat. Kuriositate bat banian aurtengo udako eta ematen dik ez dudala asetuko baina Zelatungo igandetetako erromeriak nolakoak izango oten ziren jakin nahi nian. Garai bateko ohituetara itzuliko oten ginen? Alegia, dantza soltean bakarrik egitera eta “agarrauan” galeraztera distantzia mantendu behar bada... edo norbere bikotearekin bakarrik baltsean egitera agian. Egoera kontrolatzen apai-zak Zelatungo txabola ertzean? Edo Guardia Zibila? Ederra izango huan argazkia Zelatungo zelaia lepo beteta distantzian eta denak musukoarekin. Distantzia eta musukoarena ez zegok gaizki-gaizki ere: jakinik zenbat lerdetsu dagoen urrutixeago mantentzea ez duk ideia txarra. Balio izango al ziguk zerbaiteko, hausnarketarako gutxienean eta ea hasten garen aurrera egiten atzeraka egin beharrean. Umorezko adibide garbi batekin amaituko diat. Lehen aipamen bat egin diat praka parearena, ba praka parearekin bukaera ere. Ea noiz kristo hasten garen zulorik gabeko prakak erosten zenbat eta zulo gehiago dituztenak alde batera utzita. Ene, begira baleude garai bateko amonak. Zenbat konponketa egin ote zuten eta begiran orain.

Honenbestez, AIO BITXO!!

P.D. Artikulu hau ekaina-uztailean idatzita dago.

■ Manu Urruzola Aranzabe



Bitxikeriak

Alkizan 371 biztanle zeuden erroldatuak urte honen hasieran. 10 alta izan ziren, horietatik 3 bertan jaiokoak eta 7, kanpotik etorritakoak. Bajak, berriz, 9. Horietatik 2 heriotza, eta 7 kanpora joandakoak.

10 gizonezko zaharrenak 2020an

• Pantaleon Saralegui Eizmendi:	97 urte	Basozabal
• Pedro Urruzola Aranzabe	95 urte	Intxaurrendiaga aurrekoa
• Jose Ayerbe Zubiarrain	91 urte	Etxabe-txiki
• Juan Martin Gorostidi Ugartemendia	87 urte	Mariategui
• Gregorio Iruretagoyena Ugartemendia	87 urte	Lete-berria
• Javier Iruretagoyena Urquidizar	85 urte	Igaranzabal
• Simon Uzcudun Ugalde	82 urte	Arizmendi-gai
• Millan Roteta Irazusta	79 urte	Azaldegi-Etxeberri
• Tomas Urruzola Ugartemendia	78 urte	Intxaurrendiaga atzekoa
• Antonio Alberdi Eizmendi	78 urte	Altzorbe

10 emakumezko zaharrenak 2020an

• Isabel Urruzola Aranzabe	97 urte	Elizegi
• Aurea Saizar Goenaga	97 urte	Katalandegi-txiki
• Natividad Iraola Iguaran	91 urte	Bengoetxe atzekoa
• Carmen Cruces Perez	90 urte	Don Juanena
• Maria Ayerbe Zubiarrain	89 urte	Otsamendi behekoa
• Justa Arsuaga Eizmendi	87 urte	Aginaga goikoa
• Maria Mendiola Begiristain	85 urte	Igaranzabal
• Maria Purificacion Toledo Eceiza	84 urte	Udarrats-gorri
• Maria Teresa Belamendia Otamendi	83 urte	Perualdea
• Victoria Letamendia Usandizaga	82 urte	Areta

■ Jose Mari Aranzabe "Pepe"



2019. urtean jaiotako haurrak

Mia



Oier



Irai



Ongi etorri Alkizako Eskolara!

Datorren ikasturtean (2020/2021) 2 ikasle berri izango ditugu Alkizako Eskolan: ANER ARANZABE ASTIGARRAGA, KATTALIN AGIRREZABALA SAGASTUME, 2 urteko gelarako. Bi familiak dira eskola komunitateko partaide, eta beraz, eskolaren funtzionamenduaren jakitun. Hala ere, ESKOLA BERRIA denontzat izango da ERRONKA BERRRIA.

Osasun neurriak direla eta, ez dute aurten gurekin aritzeko aukerarik izan; baina senide zaharragoak eskolan badituzte eta eroso sentituko direla espero dugu. Goxo-goxo hartuko ditugu GOXO-GOXO txokoan.

ONGI ETORRIAK ANER eta KATTALIN!!!

■ Alkizako eskola

Kattalin
Agirrezabala Sagastume




Aner
Aranzabe Astigarraga





Ongi etorri Alkizara

Ohikoa bilakatu da atal hau Oilategitik aldizkarian. Eta ohikoa izaten jarraituko duela dirudi, iaz aipatu genuen moduan, nahiz eta etxe berriak azken urteotan eraiki ez Alkizan, urtero baitago biztanleren mugimendurik. Oraingo honetan 6 biztanle berriekin gatzokizue, hemendik aurrera herrian zehar eurekin topatuz gero, jakin dezazuen gutxienez zeintzuk diren. Hona hemen kontatu digutena.



Hauek Iraia eta Christian dira. Zakurrak Mak du izena. Perualdean bizi dira, 1 zenbakiko 2. solairuan. Christian Berrobikoa da, eta Iraia Zizurkilgoa, eta biek betidanik izan dituzte herri txikiak gustuko, horregatik erabaki zuten alde zurretik ezaguna zitzaizkien gure herrira bizitzera etortzea, eta ez dira inondik ere damutu. Txorien

kantu-hotsa entzutea, mendiz inguratuta bizitzea, ibilbideetan erreketako urak entzutea eta ikustea zen euren ametsetako bat. Diotenez, egi bilakatzeko lortu dute Alkizan.

Christian mekanikoa da eta nekazal makinerian aritzen den Seikin enpresan egiten du lan. Beraz, traktoreak eta base-ri munduarekin zerikusia duten era guztietako makineria konpontzen ematen du eguna. Iraia, berriz, ostalaritzan aritzen da, Hernanin hain zuzen ere, tradizio eta ospe handia duen Guria tabernan. Konfinamenduaren inguruan ere galdetu diegu, eta esan digute Christianek lanean eman zuela berrogeialdia, baina Iraia etxean geratu zela, taberna itxita baitzegoen. Une batzuetan egun osoa etxean ematea gogor samarra egin omen zitzaion, baina gauza berriak ikasteko erabili zuen denbora.



Bizi den etxearen atarian ateratako argazki honetan agertzen dena Aitor Sarasola da. Lasartearra da berez, eta Etxebideren bitartez heldu zitzaion Alkizako plazan kokatua dagoen etxebizitza hau alokatzeko aukera. Gurasoak eta lagunak Lasarten ditu, baina gustura dago sekulako egunsentiak biziteko aukera ematen dion etxe honetan, zoragarririk

baita, bere hitzetan, inguru honek duen paisaia. Alkizak duen erakargarritasun handiena lehen aipatutakoarekin batera, lasaitasuna da. Esan digu txorien hotsarekin esnatzea ikaragarria dela. Kirolzalea da oso, eta Donostialdeko bizilagun izan den heinean, hondartzara joatea asko gustatzen zaio. Alkizan

mendian ibiltzea ere oso du gustuko, baina lana dela-eta, ez du nahiko lukeen guztietan betarik izaten hemengo ibilbideez gozatzeko.

Lazkaon aritzen da lanean, Pingun enpresan. Pingunen gruekin aritzen dira, eta Aitor esportazio kontuez arduratzen da. Hori dela eta, asko bidaiatzen du, ia beti atzerrian egiten baitu lan.



Santiago bideko etxe honetako kanpoaldean agertzen direnak Nieves, Joxean, Xuban eta Thor eta Rufo zakurrak dira. Alkizan Nieves, haren ama Axun eta Joxean bizi dira. Xuban Hernanin bizi den Nievesen 10 urteko iloba da, eta uda partean Alkizara sarri etortzen da bisitan. Thor eta Rufo zakurrak ere

hemen bizi dira. Atentzioa ematen du zalantzarik gabe Thor-en tamainak. Terranova arrazakoa da, eta uretako erreskaterako erabiltzen dituzte zakur hauek. 70 kilo ditu, eta zintzoa baino zintzoagoa dela baieztatu ahal izan dugu eurekin izan garen tartean. Rufo txuria, berriz, sitsu eta bitxon maltes arrazetako nahasketa da. Katua ere badute, Mishi izenekoa.

Alkizara nola iritsi diren galdetu diegunean, esan digute terrero pixka bat zuen etxe bat bilatzen ari zirela, eta ez zegoela aukera handiegirik. Interneten izan zuten etxe honen berri. Etorri, ikusi eta gaur arte. Oso gustura daude Alkizan, asko estimatzen baitute hemengo paisaia eta lasaitasuna. Berezikari erreparatu diote herri honetan gora begira jarri, eta hegaztiak bertatik bertara ikusteko dugun aukera paregabeari. Izugarri ederra iruditzen zaie. Quad bana ere badute, eta haiekin bueltatxoak emateko leku paregabea iruditzen zaie hau. Baratza ere lantzen dute, eta ikusi ahal izan genuenez, lerro hauek argia ikusterako, tomate ederrak izango dituzte.

Nieves Hernanikoa da, eta Irungo Decathlon-en egiten du lan, eta Joxean, berriz, Hernaniko Zikuñaga paper-fabrikari aritzen da, izatez Donostiako Egia auzokoa bada ere. Alkizako jendeak harrera ona egin diela esan digute, bereziki Ostatuko Markosek, konfinamendu garaian jator portatu baita eurekin, asko lagunduz.

■ Jose Mari Aranzabe "Pepe" eta Imanol Lizardi



Badugu “oilategi” berria



Kostata baina azkenean badugu Alkizako oiloak bertako umeak hazi eta hezi egiteko toki duina. Ametsak egi bihurtzeko izaten omen dira eta gurean, ditzosozko gaixotasun honek apur bat eten duen arren, hatz puntekin ukitzen ari gara.

Urteak joan dira Alkizak bere herritar txikientzat eskola duin bat eskatzen ari zenetik. Orain gurasoa dugun Jon (Roteta) genuen alkate eskola berria eskatzen hasi ginean. Gero beste Jon (Umerez) jarri zen alkate eta temati jarraitu zuen Alkizak behar eta merezi zuen eskola aldarrikatzen. Bejondeizuela bie, zuen lana eta ekarpenaren emaitza irekitzear dago.

Urte luze hauetan makina bat gurasoren ametsa izan da eskola berria izatea. Batzuk jada ez dira eskolako guraso baina ziur gaude harro sentituko direla lortu dugunarekin. Gu ere harro sentitzen baikara beraiek egindako lanarekin.

Zer esan orain guraso zaretenak egiten ari zareten lanaz. Eskertu ezina da ematen duzuen indarra. Bereziki aipatu nahi genuke eskola berriaren antolaketa zuen lana, musutruk egiten ari zaretena, zer esanik ez gure maisu arotzek Jon eta Xabierrek, gure eskalada adituek, Eneko eta Enauetek edota gure margolari fin Valerii-k egindakoa.

Ikasle ohia dugun Aitor Irulegi artistaren ekarpena ere eskertu beharra daukagu. Bere eskulana bidelagun izango dute gure eskolako haurrek.

Urte guzti hauetan eskolatik pasa garen irakasle guztiok aritu gara amets honetan sakontzen. Erronka handia izan da eraikin berria eskola emateko modu erakargarriago batekin uztartzea. Haurrak eskolan eroso, seguru egotea eta ilusioz etortzea dugu helburu, horrela bere heziketa prozesua aberatsagoa izan dadin. Helburu horretara bideratu ditugu gure ahaleginak eta bi. Eskerrak ere horretan aritu diren irakasle guztiei.

Esku artean dugu, ikasturte arraro batekin estreinatuko dugu baina ziur gara honetan ere asmatuko dugula. Denak elkarrekin eta elkarlanean arituta lortu dugu Alkizako eskola eraikin berria. Eskola komunitatea osatzen dugun guztion artean lortuko dugu ere “oilategi” hau Alkizako haurren ikasketeko leku atsegina eta esanguratsua izatea, inguratzen gaituen naturaz hazi eta heziko den eskola berria.

Mila esker bihotz bihotzez eskola komunitate osoaren ize-nean zuen aletxo jarri duzuen guztiei



Langileak gara etxean ere



LANGILEAK GARA

taldekideak jo eta ke aritu dira lanean etxetik.

AUPA IKASLEAK!

ETA ESKERRIK ASKO FAMILIEI!!!



ANTZERKI TAILERRA.



LH1-2-3.



LH 1-2-3 kanika zirkuitua.



Seigarren mailakoen Idazlanak



NIRE 10 URTEAK ALKIZAKO ESKOLAN

2 urte egin aurretik hasi nintzen eskolan (2010-9-7). Bihurria nintzenez, Maria izeneko andereño batek asko zigortzen ninduen eta txokoan jartzen ninduen. Nire bigarren urtean, Jone izeneko andereño bat etorri zen eta berak askoz ere gutxiago zigortzen ninduen. Askok maite zidan eta nik bera ere. Gero Ximone izeneko irakasle bat etorri zen eskolara eta irakasle horrekin beste bi urte egon ginen. Gero Izaskunekin egon ginen urte erdia eta gutxira baja hartu zuen, orduan Amaia izeneko irakasle bat etorri zen eta irakasle harekin beste urte erdia egon ginen. Hau ere oso jatorra zen. 3. mailan Unai izeneko maixu zintzo bat etorri zen. Nire maixu hoberena izan da, Unai Aldasoro, eta berarekin egon gara azkenengo lau urteak. Zenbat pazientzia hartu duen gurekin... asko ikasi dugu berarekin azken urte hauetan.

Azken urte eta erdia Erretore etxean egin dugu, gabonak pasa ondoren sartu behar genuen eskola berrian, baina Koronabirusa dela eta, ezin izan dugu eskola berria estreinatu. A ze pena azkenengo kurtsoaren bukaeran eskola berrian ezin sartu izana.

Anekdotak

1. Ximonerekin geundenean, helatu bat hartzera gonbidatu gintuen eta denok txupatuz jan genuen plaza erdian. "Cornetto xxl" zen.
2. Lehengo urtean sugandila bat sartu zen gelan.
3. Juankarri multa baten papera jarri genion eta berak hasieran sinistu egin zuen.
4. Oso oroitzapen politekin geratzen naiz 10 urte egin ditudan eskola honetan.

Oier



9 URTE ALKIZAKO ESKOLAN

Alkizako eskolan 9 urte pasa eta gero, pena ematen dit azkeneko urtea eskolan ez bukatzea eta eskola berria disfrutatu ez izana. Nik ez nuen uste kurtsoa bukatu arte egongo ginela alarma egoeran eta hainbeste urte Alkizako eskolan egon eta gero, ezingo genuenik behar den bezala agurtu. Nik 9 urte pasa ditut Alkizako eskolan, ez 10, 3 urterekin etorri ginelako Alkizara bizitzera.

Pena handi-handia ematen dit eskola berria ezin estreinatu izanak. Nola bota zuten ikusi genuen, nola eraiki zuten... eta dena eskola berrira eraman genuen. Eta orain ezin izango dugu eskola berrian ikasi. Pena handia ematen dit ere ezin izan dugula eskurtsioetara joan.

Allur



Kaixo, ni **Irina** naiz eta 12 urte ditut. Alkizako eskolan 10 urtez egon naiz eta orain azkeneko hiru hilabeteak etxean pasa ditugu. Pena handia ematen dit gure azken hiru hilabeteak lagunekin ez pasatzea.

Eskola berrian gauzak sartzeaz bukatzen ari dira. Nik ez dut barrutik ikusi, baina esaten dute oso polita gelditzen ari dela.

Gogoratzen dut nola bota zuten eskola zaharra, ematen du orain dela 2 egun izan zela. Orain eskola berria bukatuta dago eta gutxi falta da kurtsoa bukatzeko.

Eskola berria estreinatzeko gogo handia neukan, baina ez dut uste guk estreinatuko dugunik, 2 aste falta direlako kurtsoa bukatzeko eta ondoren DBHra joatea tokatzen zaigulako.



ALKIZAKO ESKOLA MADDI

Niri pena asko-asko ematen dit eskola berria ez estreinatzea, baina oraindik pena handiagoa ematen dit Alkizako eskolan nire azken urtea horrela bukatzeak. Ez dut sinisten 2020eko azken hiru hilabeteak ezin izan ditudala nire eskolan lagunekin jolasten eta eskolan disfrutatzen pasa...

Alkizako eskolan nire bizitza guztia pasa dut eta momentu ahaztezinak ditut, emozio asko bizi izan ditut, lagunak egin nituen eta gauza asko ikasi ditut.

Egunero gogoratzen naiz nola txikitzen poz-pez ibiltzen ginen jolasean. Behin, txikia nintzenean, gogoratzen dut nola ni eta nire klasekoek Simone, irakasle zoragarri batekin, labaderora joan ginela. Ni sandalia berri batzuekin joan nintzen eta lokatz putzu erraldoi batean erori nintzen. Labaderora iritsi ginenean sandaliak labaderoan garbitu genituen, gero lehortzen ziren bitartean lurrean giza puzzle bat egin genuen. Oso-oso ondo pasa nuen eta par asko egin nuen egun horretan. Egun hori gogoratzen dudana bakoitzean irribar bat ateratzen zait.

Nire bizitzako momentu hobereanak eskola horretan pasa ditut eta pena bat da azkenean dena horrela bukatzea. Eskola horretan hamar urtez egon ondoren, orain dena hain azkar bukatzea... ezin dut sinistu benetan. Oso tristea da.



Kaixo, ni **Lide** naiz:

Ni hamar urtez egon naiz Alkizako eskolan. Egia esan, ez nuen espero eskola zaharra botatzea, baina orain pena handia ematen dit eskola berria ez estreinatzea. Konfinamenduan hasi ginenean, uste nuen aste bat edo bi aste egongo ginela eta ez da horrela izan.

Niri bereziki ez zitzaizkidan oso ondo ematen drive eta horrelako gauzak, baina nire maixuak, hau guztia hasi aurretik, erakusten hasi zitzaigun. Hasieran nik esaten nuen ez nuela erabiliko, baina ikusi dut, Classroom-a erabiltzen jakin izan ez banu, ezin izango nituela lan asko egin. Jende

askok pentsatzen du ez dela asko ikasten, baina zuek uste baino gehiago ikasten da, aurten DBHra inoiz baina prestatuago goaz.

Konfinamendua nahiko ondo daramat, baina irteera asko galdu ditugu, niretzat inportanteena DBH ikusteko eskurtzioa. Egia esan gogo handia daukat DBHra joateko.

Pena daukat eskola berrian aritzeko aukerarik izango ez dudalako, baina hala ere, zortea daukagu, irakasleek eskolan sartzen uzten digute eta. Niretzat txikien gela da politena, etxe-txoko oso polita dauka eta. Oso dibertigarria jarri dute.

Jadanik 2 aste falta zaizkigu DBHra joateko, nik asko botako ditut faltan eskolako tailerrak, ikasteko modua eta gauza gehiago.



Kaixo, ni **Olatz** naiz eta 10 urte daramatzat eskola honetan. Urte guzti hauek oso onak izan dira. Eskola zaharra bota zutenean, pixka bat triste jarri ginen denak, baina orain jadanik eskola berria dago eta oso polita da. Pena bastante

ematen dit DBH-ra joatea, han ez delako hemengo berdina izango.

Hiru hilabete galdu ditugu eta ez du asko ematen, baina denbora horretan gauza asko gertatu daitezke. Galdu ditugu txangoa, betiko kurtso bukaerako agurra, ezingo dugu eskola berria estreinatu eta baita gauza gehiago ere...

Nik hasieran bi aste bakarrik izango zirela uste nuen, eta ondo pasako nuela, lagunekin jolasten... baina ez zen horrela izan. Eskolan ondo pasatzen genuen, batzuetan pixka bat aspertzen ginen baina gehienetan ondo pasatzen genuen. Ez dut uste DBH oso txarra izango denik, baina hemengo baina hobea ezin du izan. Hala ere, hara joateko gogo pixka bat ere badut. Laster bukatzen dugu eskolan eta espero dut institutuan dena ondo joatea.

Agur.

Seigarren mailakoen Agurra

Zuen azken egunak eskolan
duda dugu parez pare
zer izango da artisten gela
orain artistarik gabe



Lide

*Antzerki, dantza, soinua jotzen
ai bestela me moriré,
umore ona edonon zabiltz
barreiatuz airez aire
musika baita zurekin bizi
zure kide, zure ahaide
maite zaitugu segi horrela
segi irribarretsu Lide*



Oier

*Bost neska eta mutil bakarra
beti aritu haiz fin fin
berdin pilotan berdin futbolan
trebe, bizkor eta arin
gelan, parkean, txiki artean
moldatzen haizela berdin
faltan botako ditugu ziur
hire kemena ta ahalegin*



Allur

*Begi argiak, burua argi
bizitzaren ameslari
natura maite, lagunak maite,
guztietan adi, adi
segi gozatzen asko bizitzaz
izan hortan aitzindari
beti izango zara zu Allur
gure eskolako dantzari*



Olatz

*Zure buruan Tolosako ta
Bermioko berba dabil
lotsati xamar ematen duzu
zaudelako nahiko ixil
baina ahotik ateratzen da
zuzen, zorrotz ta borobil
neska jatorra zara zinez zu
segi berdin umil,umil*



Maddi

*Dantzarako, gimnastikarako
daukazu sobran kemena
eskolan berriz festa giroa
antolaketan onena
eskola uztean zaitugu Maddi
senideetan azkena
zu alai zoaz, itxaropentsu
baina guk daukagu pena*



Irina

*Zure ideiak ta iritziak
eman aurretik hausnartzen
pentsakor beti, lagunak nola
lagundu erabakitzen
abilezi berezia duzu
hitzik gabe dena esaten
jarrai ezazu zoriontsu ta
mundu hobe bat amesten*



Pentsatzea, sentitzea, libre, denon eskubide

laz esan genuen *zoriontasuna* hitzarekin egingo geniola aurre txoko honi, baina aurtengo egoera berezia dela eta, pentsatu dugu hitz hau datorren urterako uztea eta honen ordez *konfinamendu* hitza hartzea.

Honi buruz askotariko iritziak entzun eta irakurri ditugu. Akaso, bizitza ez dela egi bakarreako ikusten lagunduko digu, bizitzaren konplexutasuna begi bistan uzten baitu.

Denontzat konfinamendua fenomeno bera izanik, denok berdin bizitu al dugu? Lan egoera berdinetan harrapatu al gaitu? Berdin al da Alkizan bizi edo hiri handi batean kokatu? Bizitza balkoirik gabeko etxe batean, txaletean, base-rrian, bizilekua zorretan edukitzea edo etxerik gabekoa izatea? Kartzelan edo libre egotea? Kopuru handiko familian murgildu edo txikikoan? Edadekoa, nerabea edo haurra izatea? Emakumea ala gizona? Afrikarra, Txinatarra, Sahararra edo... izan? Mila aldagai izendatzen jarrai dezakegu eta akaso ez genituzke denak aipatuko.

Alkizan bertan bizita, hona hemen gure herri-tarrak nola igaro duten konfinamendua.

Hitza: Konfinamendua

Galderak:

- Nola eraman duzu konfinamendua?
- Zer etorri zaizu burura: zein gogoeta edo kezka eragin dizkizu?
- Zein sentimendu esnatu zaizkizu?
- Zer egiten aritu zara? Eta etorkizunari begira nolako egoera aurre ikusten duzu



OIER OLASAGASTI (11 urte)

Konfinamendua ondo eraman dut garajea pelotan eta baloian jolastu ibili ahal izan dudalako, baina etxean egon beharrak egon ezina sortzen zidan eta oso gogorra ere egin zait.

Sortzen zitzaizkidan kezkek, etxerako lanak gaizki eginge edo bukatzeko epea pasatzea izaten ziren, bai eta jendea gaixotzea edo hiltzea.

Etxetik ateratzeko beldurra eta tristura dira esnatzen zitzaizkidan sentimenduak.

Etxean nengoenean gehienetan etxerako lanak egiten aritu naiz.



OLATZ GORRITI TORRES (12 urte)

Konfinamendua nahiko ondo daramat. Hasieran ez nintzen etxetik ateratzen, guraso eta nebarekin errezetak egin genituen eta asko jolastu ginen.

Neukan kezka zen ea noiz ahalko genuen familia eta lagunekin egon.

Gehienetan sentitzen dudana pena eta tristura da, alde batetik jendea hiltzen ari delako eta bestetik hiru hilabete hauetan gauza asko galdu ditudalako.

Familiarekin jolastu, lagunekin bideokonferentziak egin eta etxeko lanak burutzen aritu naiz. Etorkizunean gauzak hobera joango direla uste dut eta tokietara joan, jolastu eta gauza gehiago egin ahal izango ditugula pentsatzen dut.



► MARINA UMEREZ (17 urte)

Egia esan nahiko ondo, zortea baitut. Bai Alkizan bizi naizelako eta bai 1.batxillerreko azken ebaluazioan egonda ez duelako hainbesteko ahalegina eskatzen. Hala ere, kirola egitera ateratzeko aukera dugunetik askoz hobeto daramat konfinamendua.

Orain bizitzen ari garen egoera bereziak baino kezka gehiago eragiten dit ondoren datorrenak. Ikusita jarduera guztiak bertan behera uzteak ekarri dituen arazoak, normaltasunera bueltatzen garenerako beste berri asko sortuko dira. Gainera, berriro birusa zabaltzen hasteko eta faseetan atzera edo konfinamendura bueltatzeko aukerak daude. Bestalde, hurrengo kurtsoa aurrez aurreko eskolak edo online egingo den oraindik ez dakigu, baina prebentzio neurriak zein diren ikusita, baliteke online hastea eta ez da aukera onena.

Hasieran poztasuna eta jakin-mina izan ziren piztutako sentimenduak, pare bat aste izango zirelakoan, eskolara joan gabe eta etxean lasai egoteko aukera izango nuela pentsatuz. Berehala baina, ikusi zen luze joko zuela eta horrek ezinegona ekarri zidan. Konfinamenduan egoitera ohitzen joan ahala, lasaitzen eta egiteko gauza berriak aurkitzen joan nintzen. Orain kalera atera gaitezkeela eta lagunak berriro ikusi, poztasuna sentitzen dut.

Hasieran ohiko egun batean egingo nukeena egiten nuen, goizean klaseak entzun eta lanak egin. Arratsaldean kirola egiten nuen modu batera edo bestera, edo lagunekin hitz egiten nuen. Orain eskola bukatu dudala, antzekoa egiten dut baina goizak lasai pasata eta arratsaldeetan egiten dudana eginda, kalean egoteko aukerarekin. Etorkizunean, udara dator, berezia izango den arren, kanpoan egoteko aukera izango dugu, ez bagara atzera bueltatzen noski. Kurtso berria hasten denerako, ez dakigu egoera zein izango den, baina edozertarako prest egon behar dugu.

► IGOR GOROSTIDI (22 urte)

Ikusitakoak ikusita, nik uste ezin naizela kexatu, gehien-goak etxean sartuta egon behar izan du, baina nire kasuan ezta hainbesterako izan. Lana egiten dudana enpresak papera egiten du eta hau lehen beharra bezala jarri zuten, martxan jarraitu du. Gainera baserrian animaliak ditugu eta hauek zaintzeko ere etxetik irteteko aukera izan dut. Oraingo teknologiarekin gainera, nahiz eta berdina ez izan, lagunekin eta familiarekin kontaktua mantentzea lortu dugu.

Nola ez! lehenengo kezka osasuna izan da, agian ez nire gaztea eta osasuntsua izanda ez nuelako arrisku handirik, baina denok daukagu ingurukoren bat arriskutaldekora eta hor dago beraiek kutsatzeko beldur hori. Beste alde batetik mundua nola gelditu den ikusita, ekonomia ere kezagarria dela esango nuke, ezta erreza izango honi buelta ematea.

Egoera pixka bat hobetu den honetan, nik uste orokorrean denok asko lasaitu garela, normala ere bada hila-bete gogorrak izan dira eta, baina nik uste hobea izango dela neurriak mantentzea bestela berriz ere lehengora itzultzeko arriskua hor baitago.

Sentimenduez hitz egitea askotan ezta erreza, baina bueno beti sortzen dira sentimenduak, nola ez lehenago esanda bezala: beldurra, gehiegizkoa ez bada izan ere beti hor dago. Aspertzea izan liteke beste bat, denbora librean lagunekin edo norbaitekin gelditzera ohituta nago ni eta kasu honetan ezta posible izan. Inpotentzia ere handia izan da, ezin ezer egin, lanera joan eta segurtasun neurri handiak hartu behar, eta beti zer gertatuko den jakin gabe. Nik uste gainera hedabideek ere ez dutela asko lagundu, beste zerbaitez hitz egin beharrean egun guztian eta leku guztietan gai bera eta kutsatuen eta hildakoen kontaketa besterik ez, ez dut uste horrek histeria sozialari onik egin dionik

Lehen aipatu bezala paper-fabrika batean hari naiz lanean, hain zuzen Amezketakoko Aralar paper-fabrikaren, mantentze elektronikoko postu batean. Etorkizunari begira nork daki zer gertatuko den, oraingo gustura nago bertan eta jarraitzeko aukera eman didatenez bertan gertatuko naiz.

► JORDI DEVIS (45 urte)

Konfinamenduaren hasieran oso gaizki pasatu nuen, bat-batean aldaketa oso handia izan zen niretzat, ia ohi-tura guztiak aldatu egin zitzaizkidan. Gogorrena pasatu denean konturatu naiz ikaste-prozesu bat izan dela.

Etorri zitzaidan lehenengo kezka izan zen egoera oso larria zela eta ahalik eta azkarren gaintu egin behar nuela, orduan nire ahalegin guztiak osasunean jarri nituen.

Dena pasatzeko gogoia neukan, baina luzatzen hasi zenean konturatu nintzen hau luzerako genuela eta nola-bait moldatzeko, bizimodua aldatu egin behar nuela.

Gero, beste aldetik, bizi naizen lekua eta jendea dago-kionez, pentsatu nuen zorte handia izan dudala, zeren



itxialdia pasatzea tokatu zitzaidanean haiek bikainak izan dira. Hiri batean pasatu izan banu, nik uste dut askoz go-gorragoa egingo zitzaidala.

Halako aldaketa handiak sentimendu asko sortu dizkit: sorpresa, harridura, egun batetik bestera dena geldirik... Gogoratzen naiz Tolosak herri mamu bat ematen zuela.

Sortu zitzaidan burutapena hauxe izan zen: gaitz hau gainditzeko jarrera bat behar genuela, hau nolabait de-non gaitza zenez, sendaketa kolektiboa izan behar zuela, nolabait esateko osasunaren aldeko auzolan bat.

Beste aldetik umiltasun pixka bat, azkenean naturaren menpe gaude. Normalean garrantzitsutzat jotzen ditugun gauzak, egun batetik bestera aldatu egin dira eta ez dira uste bezain garrantzitsuak. Lehentasunak aldatu zaizkigu.

Hortaz aparte, gogorrena pasa zenean, konturatu nintzen antsietate edo estres egoera pasatu arren, katxondeorako denbora ere eman zigula.

Harrigarriena niretzat ondorengo momentu hau izan zen: umeak kalera atera ziren lehenengo egunean, Tolosako kaleetan haurren jolasen hotsa entzun nuenean... orduan konturatu nintzen zein larria izan zen pasa genuen egoera!

Konfinamendua hasi zenean oso lanpetuta nengil, lan handia geneukan eta justu ikastaro bat bukatzen ari nintzen.

Etxean, alabek, etxetik kanpo jasotzen dituzten ikaske-tei, egiten dituzten jokoei, lagunei etab. nolabaiteko alter-natiba edo guzti hori ordezkatzeko saiatu nintzen.


Aldi berean, nahiz eta kalean ez ibili, agian normalean baino gehiago sozializatu nintzen, internet bidez eta telefonoz, baita urte askotan harremanik ez nuen jendea-rekin ere!

Datorkidan egoerari dagokionez, lanean eta etxekoekin hainbeste aldaketetara egokitzen jarraituko dut. Beste erremediorik ez dago eta!

▶ AMAIA GARMENDIA (55 urte)

Konfinamendua ondo hartu nuen, baina etortzen zitzai-dan beldurra izaten zen, gaixotasuna etxera sartzen ba-zan adineko pertsona bat genuela eta... nitaz ez nuen pentsatzen, ni sendatuko nintzela iruditzen baitzitzaidan, baina aitona, ezin ahaztu.

Bururatzen zitzaidana zen, koronabirusa gaixotasun bat zela eta gaurko gizartean dabilkigun mugimenduare-



kin, hainbeste joan etorri, jende nahasketa honekin, gai-xotasuna errazago zabaldu zitekeela. Kasu honetan gai-tza Txinatik etorri bada norbait mugitu delako izan da. Mu-gimendu honek gauza onak ditu, baina txarrak ere bai.

Konfinamenduak nabarmendu dit pertsonak bizitzeko ez dugula hainbeste gauzaren beharrik, ez dugula halako puntetara iritsi behar, bizitza simpleagoa izan daitekeela, etxe bat edukita zertarako bestea?

Baserrian bizita pribilegiatua sentitu naiz, guk beti be-zala lan egin dugu. Baserriko bizimodua horrelakoa da. Askok komentatu didate inbidia ematen genielara, baina, orain arte mesprezatuak izan gara eta orain, orain hasi dira gu baloratzen? Honek amorrua piztu dit. Lurra edu-kitzeak duen baloreaz, orain ohartu al dira? Beraiek, leihorik gabeko etxeetan, kioletan sartuta bezala sumatu direnean?

Gure eguneroko bizimoduan izan dugun aldaketa izan da: familiako inor ez zaigula bixitan etorri eta ni ere ez nai-zela ama ikustera joan, ez naizela sekula egon bi hilabete ama ikusi gabe.

Etorkizunean aldaketa handik sumatzen ditut, gehien-bat elkartzeko dugun ohituretan, zeren gu beti izan gara tabernetan biltzekoak, etxera etortzen direnei mokadu bat ematekoak, herriko jaiak ospatzekoak... hauek ere ez dira izango. Boterea dutenek arma asko egiten ari dira, baina hau, ikusten ez den arma honek, mundua gelditu du!

Baserriko produktuetan ez du eragin txarrik izan, alderan-tziz, estimazio gehien izan duen produktua izan da, eta asko entzuten ari naiz bertako produktua erostearen onuraz.

■ Ixiar Irulegi



Mendikoetxeko leihotik: berrogeialdiko zenbait testu



2020-03-30, 10:55:37

Testu hauek *blogoetak* izeneko blogean argitaratu nituen¹, 2020 honetako udaberrian, etxean konfinatuta geundela. Goiko argazkia ere blogean argitaratu zen: leiho beretik ateratako 50 argazkiko serie baten 15.a da.

¹ <https://artzubi.eus/wp/blogoetak/>



Niregana heldu zenean

Txinarrak kolpatu zituen aurrena,
baina haiek txinoak zirela, eta lasai gelditu nintzen,
ez bainintzen txinatarra.

Hona ez zela iritsiko esan ziguten gero,
eta egongelako sofán eserita jarraitu nuen,
ni europarra bainintzen.

Italiara, eta gero Arabara ere heldu zen Zera hori,
eta txori urdinaren txioei begira geratu nintzen,
gure osakidetzekin seguru.

Zaharrei eta gaixoei soilik erasotzen ziela ere esan zuten,
eta tira, gaitz erdi, esan nuen neure baitan,
ez bainengoen gaixo, ez bainintzen zaharra.

Niregana heldu zenean, baina,
ez nuen ondoan lagundu nintzakeen inor.

*Egun hauetan ohikoa baino areagoko bakardadean
hiltzen ari direnei*

Oharra: Esan beharrik ez dago, oso poema ezaguna hartu dut oinarri goiko hori idazteko, askok –neronek ere bai, orain arte– Bertold Brechtena dela uste izan eta esanagatik, Martin Niemöller artzain protestante alemanak (1892–1984) idatzia omen dena; sermoian baliatzeko idatzia, gainera, hasiera batean: *Als die Nazis die Kommunisten holten...* (Naziak komunisten bila etorri zirenean...).

2020-03-19

Eta denbora geratu egin zen

Denbora geratu egin zen, edo hala zirudien behintzat, halakoxeko moteltasuna zerion, eta zer gerta geratu ginen leihoetan, mira, uzkur besaulkietan, uzkur oheetan, geroak zer ekarriko, presoa kartzelan nola egunen arrastoak banan-banan horman margotzen, akuria kaiolan nola albisteen gurpil zoroan bueltaka, hura dena noiz amaituko, lagunak mugikorren beiratik baino ez genituen ikuskatzen eta handik bidaltzen genizkien debekatutako muxuak, umeek ere, etxe zuloetan erretxinduta, pantailetan aurkitu zuten babesa, ezkutuko maitaleen hitzorduak etenda geratu ziren, babesa kanpoan aurkitzen zuen emakume askok barruko denborak beldurgarriki luzatuta ikusi zituen, agintariak eguraldi ona egiten zuenerako zirela onak pentsatu genuen, ekaitz giroan ez zirela hain trebe, eta tristurak jantzi zituen kaleak, goibeldu ziren bihotzak, beldurrak airean genituen gogoak eguna joan eguna etorri heltzen ziren berriekin, jendea hiltzen ari baitzen ohi baino azkarrago, atzo baino bakartiago, zaharrak omen zi-

ren, eta heriotzak noiz inguratuko zitzaizkigun geunden, eta airea astun zebilen, bare, argia nare, natura harri eta zur sumatzen genuen eman zitzaion tregoarekin, eta kanpoa ohi bezala berdeberitzen hasi zen urrutira, kukua kantari, udaberria zen, eta geure artean egiten genuen uda ere iritsiko zela, ba, halako batean, denbora berriz ernatu eta beroa ekarriko zigula noizbait, eguzkitan etzateko, itsasoan murgiltzeko, lagunak eta gurasoak eta senideak eta seme-alabak eta maitaleak eta lankideak besarkatzeko, eta ilunpe hura atzean utziko zuen argiarekin egiten genuen amets, inoiz helduko baitzen, baldinbaitere, tristurak irribarretuko zituen eguna...

2020-03-24

Tiraderako egitasmoak

Apirilaren lapurrez mintzatu zen poeta,
apirila ebatsi zietela zioten kantako pertsonaiek,
bihotzarekin batera tiraderan gorderik zuten hila
ebatsi zietela.

Apirila ebatsi digutela zioen askok joan den hilean.
Martxoaren erdia ere ostu ziguten,
bide beretik doa maiatza.

Kontua ez da, baina, maiatzean maiatza ebasten digutela.
Maiatzean, ekaina ere ebasten ari zaizkigu,
eta ekainean uztaila izango da,
eta udan udazkena,
eta aurten geurtza...

Aspaldi ikasia genuen etorkizuna ez dela existitzen,
ez uzteko geroko oraineko gerezia.
Baina orainean irudikatzen bide dugu etorkizuna,
orainean pentsatu ohi dugu gerorako zer nahi dugun.
Eta planak egitea bagenuen behintzat, orain arte.
Orain ez dugu.

Trena hartzen dugularik, ezin dugu ziurtatu inora
iritsiko dela,
baina izan, badu helmuga bat.
Orain, trenik ere ez dago geltoki mortu honetan.

Hilak, egitasmoak, planak, helmugak...
ebatsi dizkigute,
bihotzeko tiraderan gorderik genituen egitasmoak.

Eta lapurra, birus bat ote da?
Beldurra ote da, egitasmook
ezerezean urtzen ari dena?

2020-05-11

■ Xabier Artola Zubillaga



Bizipenak

I

Nora goaz
 Askatasuna eta Zoriontasunaren bila?
 kanpora? Amets urrutira?
 Begiak itxi
 barneratu
 bizitutakoak aurkitu.
 Malkotan blaitu.
 Amorrutan sutu.
 Ulertu. Onartu. Hustu.
 Sumatu. Sentitu.
 Bertan ditugu

II

Kanpoan dena lotuta dago
 ez gaitezen engaina
 ez gara libre.
 Noren bidean gaude?
 Eutsi, elkartu
 zuk eta nik eta guk
 guk eta zuk eta nik.
 Sustraiak lekukoan errotu.
 Burua libreki gozatu.
 Izadiarekin dantzatu.
 Kontzienteki bidea eraiki.

III

Betiko arnas berriak
 goxatu dit
 amaigabeko amets hausteak
 irekitako zauri zaharra.

IV

Nahiago dut
 isiltasuna, ezereza,
 naturarekin erlaxionatu.
 Nahiago dut
 hauengan murgildu.
 Ez baitute ezer exijitzen, juzgatzen
 ez baitute ezer izan nahi
 ez baitute ezer izan beharrik
 beraien izatea jarraitu besterik.
 Hauengan
 haizeak daraman udazkeneko hostoa dirudit.
 Baina... modernitatean itsututa
 izatea galdu duen gizarte
 aire garbiak aurkitu nahi dituen
 hosto galdua naiz ni.

V

Ku ku, ku ku.
 Euskaraz bizi nahi dut:
 hitz egin, entzun, jardun.
 NORA joan behar dut?



Gutariko bakoitza, oroit

*Kultura sortu eta kontsumitzen duten guzti haiei,
eskerrik asko*

Lekuko garen pasarte historiko baten erdian gaudela pentsatzen dut maiz, baina aipatu beharrik ez dagoela ere bururaten zait, jada pandemia honen izena entzuteaz kokoteraino gaudelako.

Gizakiak, gizakiari eraso dion gertaera historiko pila dira gure historia istorioz bete dituztenak: berba gaiztoetatik hasi eta gerra benetan hotzetara, armetan bizi diren baletatik bonbetara. Gizakiak mina egiteko duen nahi horretatik bizia ukatzera.

Artistek, idazleek, musikariek zein kultura sortu eta kontsumitzen duen oro hark eman digu gertakari horien pertzepzioa. Batzuetan irreal, errealegia aldiz, besteetan.

Haiek sortu duten guzti hartan gelditu dira lekuak leku ez diren lekuetako istorioak eta oroi-menak; minak bertako guztiak gatibatuak utzi dituen bitartean.

Istorio horien sortzaile zein kontsumitzaileek sentimenduz eta emozioz jantzi nahi izan dituzte gertakariak, min hark sortu duen guzti hura senda dadin, eta hondar horietatik gure ondorengoak hazi daitezten, poliki-poliki ninikatutako hosto eta hitzen artean.

Historian zehar gertaturiko hark sortu duena, gizakiaren izatearen zati da, gutariko bakoitzarena. Idatzi, oihukatu, dantzatu, marraztu zein musikatu egiten dugu barruko hori, sortzaileak gure gizartearentzat sortu duen apur horren aletxo bat bada ere, senti dezan.

Konfinamendu garaian bizitu zein sentitzeko aukera izan dugu, hala, kontsumitzaileak zein sortzaileak bilakatuz. Gehiago egin ezin genuenean irakurtzeari ekin diogu, mundua aditzeari, isilean egoteari, dantza zein kanta egiteari, ahazturiko etxearen beste aldean dugun armarua ireki eta marraztu ere egin dugu. Kultura eta haren eragile guztiak lehen mailako behar bilakatu ditugu, aspaldian aspaldiko sentimenduei lekua utziz. Istorio bakoitza gutariko bakoitzaren historiaren zati eginez.

Orain beraz, gutariko bakoitza, oroit. Oroit bizirik eta eskuzabal. (Kirmen Uribe).

■ Shrabani Aranzabe





Mendien atzeko eguzkiak



Paisaiak distantziari buruz hitz egiten dit, eta batez ere urruntasunaz. Distantzia eta urruntasuna ez dira gauza bera. Ez nuke jakingo esaten zenbat distantziara dagoen ikusten dudan kolore hori. Baina bestalde, jakingo nuke esaten urruti edo gertu dagoen. Bideak zenbaitetan aspergariak dira, lokatzez beteak, horrelakoetan batek ez daki zer pentsatu. Urruti badago, oinak minduta izango dituzu, mapetan dena dago gertu. Txikitan esan zidaten mundua baloi batean sartzen zela. Distantziak mila modutara irudika daitezke, belauneko mina ordea nirea izango da.

Paisaia oskola bat da eta begiak gehitzen dio esanahia, bien artean batasuna sortuz. Esanahia aspertu egiten zen, beldurtu egiten zen, beste alde batetara begiratzen zuen. Entzumenak soinua besarkatzen zuen, baina arreta galdu egiten zen, ezin baitzuen konstantea izan, gehiegi zen berarentzat, hala ere soinua berdin inposatzen zen. Denbora batera, arretak amore eman eta zerbait ulertzen zuen. Begiak itxi zituen eta ez zituen berriz ireki, bere ordua iritsi zen, inork ikusten ez zuen arren bere itzala garretan zen. Harri lau batean bihurtu zuten eta hilerrira eramanez, eramaten zu-

tena bere absentzia zen. Museoetan pinturak hor zeuden, baina ez zeuden. Absente zeuden, bata bestearengandik ere, bisitariak ere absente zeuden, nahiz eta gorputzez han egon, begiratze eta ez pentsatze bat zen, pentsatze eta ez sentitze bat, partekatzen ez duen besarkada bat bezala. Eta koadro baten bitartez beste bizitza batean izan zuen bikoteaz oroitu zen. Osoki maiteminduta zeuden, baina amaieran hura drama bat besterik ez zen izan. Metodoa kasurik ez egitea zen, ez begiratzea, ez entzutea, horrela ez zuen minik egiten, baina dena dela bihotzean pisua sentitzen zuen. Beldurtu egin zen, eta museotik joan egin zen, ez zuen berriz horri buruz ezer jakin nahi izan.

Pentsatzea gustatzen zitzaion. Gauzen bitartez pentsatzea, gauzak egiten zituen bitartean pentsatzea. Galdeztzen nion nire buruari ia gauzki horiek gabe bere bakardadean pentsatzen jakingo ote zuen. Gero pentsatu nuen, agian, bakarrik pentsatzeko modu bakarra objektuen bitartez egitea zela. Norbaitek bakarrik pentsatzen duenean, absente dagoen bestea, gauzaki bihurtzen da, baliteke gezurra izatea. Baina ez zitzaidan garbi geratu zergatik faraoiek



gauzak beste mundura eraman nahi zituzten. Analisi hitza motz geratzen da arreta handiarekin begiratzen duenarentzat. Zerbaiti konektaturik zegoela diote, bere lotura oso indartsua zela, ez genuen jakin esaten zer zen, baina sakonki lagungarria egiten zitzaigun. Nik nahi dudan gauza bakarra zeuk ikastea da. Hau esan zidan behin, zerbait oso zaila eskatu zidan, uste dut lortu nuela, baina sekula ez nuen ulertu ikasi nuena. Badira mundu honetan zenbait gauza, ulertzen badira magia galtzen dutenak. Nork daki, agian urkatzaile bihurtu ginen egunen batean konturatu gabe. Hautzaroa, inozentzia, magia eta misterioa disezionatzen genituen bitartean desagertu egiten ziren. Txikitan guztiz neurrigabeko indar batekin mamuekin borrokatzen zen, hauekin nahi zuena egin zezakeen gerturatzen zirenean, baita beraien forma aldatu ere. Plastilina bezala ziren, horma zuria, harri gris iluna eta kartel ofizial bat egurrezko ate baten gainean, hauek modela zitzakeen nahieran. Mamuak ez ziren kezkatzen, bakarrik abestu egiten zuten, eta haurrak hauekin batera abesten zuten. Podologoak galdetu zion: zertan ari zara? eta haurrak erantzun zuten kontzesio bat eginaz: “jollasten”, bestela, ez zion ulertuko.

Elkar agurtu zutenean, bat bertan gelditu zen, laguna bere begien aurrean nola desagertzen zen ikusi arte. Lagunak edukitzearen okerrean hauei agur esan beharra izaten da. Abestiaren dotoretasun horren bitartez gauza asko ahazten zituen. Zaila da aurkitzea jakin gabe dakien norbait. Gazia ez den gatza. Jaramonik egiten ez duen begirada. Indiferentzia. Muturrekoka ere ulertzen ez duena. Bere aitak maite zuela ulertzen duen neskatoa. Beranduegi, orain jada ez dago gure artean eta berak bakarrik zekien bakeak egitearen konjurua. Irribarre egiten zuen konturatu baitzen bakea lortu zuela, eta hori zen axola zitzaion gauza bakarra. Haur izatera itzuli zen, eta lotsarik gabe jendeari begietara begiratzea berreskuratu zuen.

Hiltzen ez jakitea arazo larria da. Bigarren pisukoari amaitzea asko ari zitzaion kostatzen, ia mende bat, eta oraindik haur eskola gairatu gabe zeukala zirudien. Aitonaren historia umiliagarria izan zen, seme alabek ez zekiela duintasunez egiten eta ume bat bezala portatzen zela leporatzen zioten. Jolasean ume batek duen seriositasunaz pentsatu nuen, munduko gauzarik serioenak jolas izena zuen, eta aitonak ahaztu egin zuen. Aitonak esaten zuen: ez dakit hau egiten, ez dakit bestea egiten, ni naiz garrantzitsuena, familia apurtuta dago. Desegindako puzzle bateko piezak ziren horiek eta pertsona batek bakarrik eraiki zezakeen, eta pertsona hori prest ez zegoenez paisaia guztia apurtu zen.

Zerbaiten aurrean jartzen zen eta isildu egiten zen, horrela han gertakizun bat existitzea posible egiten zuen. Horreta-

rako bi gauza behar zituen, denbora eta isiltasuna, zaratak nahasi egiten zuten, distrazio zen berarentzat. Hondartzan paseatzen zen eta gustuko zituen oskol, maskor eta urak leundutako kristalezko zatiak hartzera makurtzen zen, bihotzera heltzen zitzaizkion pieza txikiak. Erleek gauza bera egiten zuten loreen polenarekin.

Noski, baina gertatzen den hori bertan hil daiteke, hori drama handi bat da. Harekin metafora bat egiten jakin beharra zegoen, testigu bat bilatu. Bera saiatzen zen, ez zen beti gertatzen, konplikatua zen, hitza erabiltzea erabaki zuen, ez zen trebea idazten, baina ahotsaren bitartez egituratzen zekien. Ezin zuen edonola izan, itzalen artetik agertzen zen misterio bat bezala izan behar zuen, baina misterioa inork ez zuen seriozki hartzen. Basora joatea gustatzen zitzaion eta sasien artean ezkutatzea, inork aurkitu ezingo zuen tokira, han, marrazki batzuk egiten zituen. Egiten zuenak zentzurik ez zuela pentsatzen zuen, faraoiek beste bizitzarako gordetzen zituzten altxorren gisara, gerora erabiltzen ez diren zapataz beteriko armairu horiek bezala. Han bakean negar egin zezakeen. Erreka baten ondoan bizi zen, han dena zen jario, agian han egon beharra zuen, izan ere beragan zerbait ez zihoan ondo. Agian errekaingandik ikasi nahi zuen, urarengandik, nola hark forma ematen zion lurraldeari, nola ixten zuen bizitzaren zirkulua. Baina batez ere itsasoa. Gauetan itsasoaz oroitzean negar egiten zuen.

Oinez zihoan kaleetatik, aurreiritzik gabe begiratzen zion arkitektura absurdo hari. Inor ez zebilen barneko patio izugarriak topatzen zituen, aparkaleku erraldoiak, behe-aurzoak, arkitektura proiektu hura ero batek egina zirudien. Etxeen balkoiak oso gertu zeuden eta ia elkar ukitzen zuten. Tokia hain estua zen ez zegoela suizidioarentzako lekurik ere. Aurreko urteko jaietan berarekin egon ziren, irribarre egiten ikusi zuten, begiak itxi eta dantza egiten, buruan zituen soinua gustatuko balitzaizkio bezala. Baina momentuak eta momentuak daude, oinarrizko jakinduria da hori. Paisaiari begira geratu laua ikusten duzun arte, lainoek eta argiak beste paisaia bat sortzen dute eta orduan hasten zara sarkontasuna ikusten, urruntasuna.

Immateriala dena, erreka metafisikoak zubiaren azpitik doan horrek baino pisu gehiago dauka. Paisaia elementu immaterialen bitartez marrazten da. Ez zitzaizun ezer falta, zergatik joan behar izan zinen. Berak ez zion barkatu, errealitateak zanpatu egiten zuen, orain paisaian bizi da. Hildakoek formetan egiten dute habia, bizidun batek ikasi ezin duen umildade lezio bat da hori. Hori da dena, hori zen dena.



Alkizako hidalgoak

Bezino kontzejanteen zerrenda

Lehen, herri batean bizi izateko, edonork bete behar zuen baldintza zen “filazioa, noblezia eta odolgarbitasuna” izatea. Hau da, ez egotea nahasketarik moro, judutar, ijito edo beste arrazaren batekin. Hauek ziren “moradoreak” deitzen zietenak. Horretaz gain, ohorezko karguetan izenduak izateko millare eta ondasunen jabe izan behar zuten. Hauei “bezino kontzejanteak” deitzen zieten. Ondoren, Alkizako matrikula liburuan agertzen diren “bezino kontzejanteak” aipatuko dizkizuet:

Gregorio Aramburu, alkate eta epaile arrunta, Aritzategi garaikoa etxearen jabea, eta Aiako Aranburu oinetxeko jatorrikoa. Pedro Antonio Irazusta, errejidorea, Aginaga oinetxearen jabea, eta Albiztur Irazusta oinetxeko jatorrikoa. Martin Jose Tapia, errejidorea, eta Arpide baserriko jabea, Anoetako Tapia oinetxeko jatorrikoa. Hauen errejistroa 1786ko abenduaren 10ean sinatu zuen Juan Domingo Elola eskribauak. Juan Ignacio Aranzabe, garaiko alkatea, Aritzategi azpikoa oinetxearen jabea, Albizturko Aranzabe oinetxeko jatorrikoa. Bere aita Migel Antoniok 1722an probatu zuen hidalgia Albizturren. Pedro Antonio Legarra Apaiztegi, errejidorea, Apaiztegi baserriko jabea, Villabona-Amasako Legarra-Juanzuriena oinetxeko jatorrikoa. Bere aitaren bir-birraitona Juan Perez de Legarra ezkontzaz etorri zen Apaiztegi baserrira. Pedro Miranda, errejidorea, Beltzalaga handia oinetxearen jabea, konformidade berdinean gozatu zituzten Josef Miranda aita, eta Juan Miranda aitona Hernialdeko Miranda oinetxeko jatorrikoak. Geronimo Anjel Alkizalete, diruzaina, 1771n Donostiako Batzar orokorrean onartu zitzaion bere hidalgia. Pedro Antonio Legarra Bengoetxea, Bengoetxea oinetxearen jabea, baita ere Amasa-Villabonako Legarra-Juanzuriena oinetxeko jatorrikoa. Juan Santiago Urruzola, Garaikoetxea baserriko jabea, Urruzola garaikoa oinetxeko jatorrikoa. Bere aita Pedro Ignacio eta anaiek 1775ean ejekutoriatu zuten hidalgia, eta entronkatu 1761ean Juan Antonio Urruzolak ejekutoriatutakoarekin. Juan Ignacio Urruzola Goyeneta, Aranguren baserriko jabea, bere aita Pedro Ignacio eta anaiak bezala 1775ean ejekutoriatu zuen hidalgia. Fermin Antonio Urru-

zola, Etxabe goiena oinetxeko jabea, Urruzola garaiko oinetxeko jatorrikoa, 1775ean ejekutoriatu zuen hidalgia. Juan Ignacio Roteta Ancieta, Ancieta oinetxearen jabea eta Aiako Erroteta oinetxeko jatorrikoa. Aurrekoak 1787ko maiatzaren 4an sinatu zuten, eta Rotetaren ondorengoek 1787ko ekainaren 30ean. Juan Marcos Urruzola, Zumitza oinetxearen jabea, hidalgia jabetzan aurkitzen da bere aita Joseph Antonio, aitona Juan Ignacio eta birraitona Juan Urruzola bezala, Urruzola garaikoa oinetxeko jatorrikoak. Juan Antonio Garro, Garro baserriaren jabea, eta bertako jatorrikoa. Juan Bautista Urquidizar, Arpide garaikoa baserrikoa, 1785ean probatu zuen bere hidalgia. Geronimo Ezcamendi, Urrutikoetxea oinetxearen jabea, eta bere aita Juan Bautista Ezcamendi, Hernialdeko Ezcamendi oinetxeko jatorrikoa, 1713an probatu zuten hidalgia. Juan Bautista Elola, bere aita eta Juan Elola aitona, Etxabe bitartea oinetxeko jabeak izandakoak, eta Bidaniko Elola oinetxeko jatorrikoak, eta ni Juan Domingo Elola. 1787tik 1816ra ez zen asentatu inor matrikula liburuan, batez ere eskribauen utzikieriatatik. 1816ko udal bilkuran erabaki zen matrikula liburua eguneratzea. Juan Jose Ezcamendi, Urrutikoetxea oinetxeko jabea matrikula liburuan 1816ko apirilaren 15ean errejistratu zuten. Juan Martin Elola, Etxabe bitarteako jabea 1792ko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Juan Antonio Aramburu Urruzola, Urruzola garaiko oinetxeko jabea, 1794ko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Jose Antonio Legarra, Bengoetxea eta Perurena oinetxeen jabea 1799ko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Gregorio Aranzabe, Aitzategi azpikoa oinetxearen jabea 1799ko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Juan Antonio Legarra Apaiztegi, 1791ko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Sebastian Echabeguren, Echabeguren oinetxeko jabea 1801eko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Jose Antonio Garro, Garro oinetxearen jabea 1804ko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Juan Antonio Aramburu Arcetegui, Aritzategi garaikoa oinetxearen jabea 1805eko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Gregorio Antonio Roteta Ancieta, Ancieta oinetxearen jabea, 1802ko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Juan Manuel Legarra, Apaiztegi oinetxearen jabea 1807ko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Juan Andres Tapia, Arpide azpikoa oinetxearen jabea 1811ko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Juan Ignacio Labaca, Belzalaga handia oinetxearen jabea,



eta Bidaniko Labaca oinetzeko jatorrikoa 1804an onartua izan zen. Juan Luis Urruzola, Zumitzako oinetxearen jabea 1813ko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Juan Francisco Antonio Alquizalet Zabala, Alquizalet oinetxearen jabea 1815eko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Jose Angel Larrera koronela, Sorabillako Acelain jauregiko jabea, bere emaztea Maria Josefa Irulegi, Etxesagasti baserriko jabeak emandako ahalez, matrikula liburuan sartzea eskatu zuen, eta 1816ko uztailaren 15ean onartu zitzaion. Juan Santiago Urruzola, Garaikoetxea oinetxearen jabea, 1820an onartua izan zen. Juan Lorenzo Eceiza, Maria Ignacia Aranzabe, Aritzategi azpikoa, Aritzategi barrena eta Aldayako jabearen senarra, Tolosako Eceizabarrenako oinetzeko jatorrikoa 1827an onartua izan zen. Gregorio Antonio Ezcamendi, Urrutikoetxekoa, 1827ko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. 1830eko martxoaren 20ko udal bilkuran onartua izan zen. Jose Antonio Garagarza, Amezketako naturala, Garagarza oinetzeko jatorrikoa Urnietan, eta Aginaga baserriko jabea. Francisco Antonio Aramburu, Aritzategi garaikoaren jabea 1831ko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Pedro Joaquin Legarra, Apaiztegiko jabea, 1832ko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Juan Antonio Urruzola, Zumitzako jabea, 1832ko ekainaren 24an onartua izan zen. Juan Andres Olasagasti, Aranguren baserriaren jabea, bere emaztea Maria Felipa Urruzolaren ahalez, Olasagasti oinetzeko jatorrikoa 1833ko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Juan Luis Sainzar, Otsamendi azpikoa oinetxearen jabea, 1834an onartua izan zen. Ignacio Maria Urruzola, Garaikoetxe oinetxearen jabea 1839ko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Juan Jose Aramburu, Urrizpe baserriaren jabea 1840ko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Geronimo Jose Tapia, Arpide azpikoaren jabea, berdin. Juan Domingo Legarrak matrikula liburu errekonozituta, aurkitu zuen falta zirela bere anai Ignacio Antonio Legarra eta bere asientoa, onartuak izan zirenak 1833an. Juan Ignacio Aramburu, Urruzola garaikoaren jabea 1840ko urtarrilaren 1ean onartua izan zen. Juan Antonio Labaca, Beltzalaga handiaren jabea 1833an onartua izan zen, baina ohartuta, erruz, liburuan asentatu gabe zegoela, gaur 1846ko urtarrilaren 1ean asentatu det matrikula liburuan. Jose Francisco Roteta, Ancietaren jabea 1841ean onartua izan zen, baina ikusita liburuan falta zela, baita ere, gaur, 1846ko urtarrilaren 1ean erregistratu det matrikula liburuan. Matin Jose Olasagasti, Aranguren baserriaren jabea 1845ko urtarrilaren 1ean onartua izan zen.

Hau de "bezino kontzejateen" zerrenda matrikula liburuan asentatua dagoena. Beste batean moradoreen zerrenda aurkeztuko dizuet.

■ Jose Mari Aranzabe



Urruzola oinetxea.



Antzieta baserrian 401 urte daramatzate Rotetatarrek.



Apaiztegi baserria, Legarratarak Alkizan izan zuten lehendabiziko bizilekua.



Juan Domingo



Juan Domingo, Etxabe baserriko notarioak Alkizan, 1761-01-23an Patronatuaren oinarria herriko baserrietan ipini zuen, baserrietako jabeek aukeratzeko baizituzten Alkizako erretorea eta beste laguntzaileak. Horrela hautatu zuten Juan Irazusta bertako erretore izateko, zeinaren dokumentuarekin hasten du idatzia, hau da, Juan Irazusta zen Urruzola de luso, Mendia, Garmendia baserriaren erdia, Eleizegui, Guilisasti, denak Alkizako etxe eta baserriak. Horrelaxe jarraitu zuen dokumentuak etxe eta baserriak ia guztiak aipatuz. Gaztelaniaz idatzirik dago dokumentua eta jarraitu zuen:

“decimos que con orden del señor obispo de Pamplona se publico un edicto en que se insertaba cierta real orden para que los que tienen indultos o privilegios apostólicos para presentar a beneficiados los remitan y presenten originales en la Real Camara, y los dueños antiguos y primitivos de las referidas casas solares fueron los pobladores y fundadores de esta dicha Provincia y de la mencionada villa de Alquiza, y ellos mismos fundaron, construyeron y dotaron la yglesia unica parrochial de ella adquiriendo sin duda el derecho a patronato de dicha yglesia. Y así los dueños y poseedores respectivos que han sido de las referidas casas solares en todas las vacantes de rectoría que se han ofrecido como tales compatronos han hecho sus presentaciones dando sus votos separadamente por sí y no en aiuntamiento o modo colectivo y don Juan de Irazusta, rector actual de la dicha yglesia parrochial, ia mencioanado, fue así presentado por la mayor parte de compatronos votantes y obtuvo la rectoría y de inmemorial tiempo a esta parte dichos compratronos han hecho las representaciones de rector de dicha unica yglesia parrochial sin que jamas nos los otorgantes hubiesemos visto ni oido cosa, acto ni presentacion en contrario, como los testigos que depondran lo oyeron a sus padres y demas ancianos y ha haver havido presenatacion hecha en contrario lo hubieran savido o oido

Hauxe da Etxabe baserrian eta, aldi berean, Juan Domingo de Elola izenekoak, Alkizan 23-01- 1761 ean gauzatu zuen dokumentu solemnea eta Alkizako ia baserriar gehientsunek sinatutakoa. Ikusten duzuen ortografia aldetik ahal den zehazkien ematen saiatu naiz.

Beti bezala Juan Carlos Mora, transkribatzailearen eskuan oinarritu naiz.

■ Pello Joxe Aranburu Ugartemendia



Nirea nahi dut



XIX. mendean euskaldunok pribilegiatuak ginela esaten hasi ziren espainolak. Konbentzioko gerraren ondoren Godoyk, Espainiako erresumaren agintari nagusiak, euskal buruzagiek gerran izan zuten portaera traiziotzat hartu zuen. Arazo guztiaren muina foru sistemaren iraupean omen zegoen. Hala, 1802an Espainiako Gortean euskal Foruen antolakundearen oinarri juridikoak aztertzen hasi ziren, eta ondorio bitxi batera ailegatu ziren: Foruak erregearen borondatez sorturikoak zirela. Beraz, garai batean pribilegiatuak izan ginela eta erregeak nahi izanezkeru pribilegio haiek ken omen zitzakeen gogoak ematen zionean. Horrela, bada, aipaturiko gerran gaizki portatu ginelako, bigarren gerra karlistaren ondoren, pribilegioak omen ziren Foruak kendu egin zizkiguten. Harrezkeru gure Konstituzioa ziren Foruak kendu eta Konstituzio Espainiarraren uztarpean bizi gara orain.



Beste ondorio bitxi bat ere atera zuten: euskararen antzinatea ukatuz zortzigarren mendean asmatu hizauntza zela (J. Agirreazkuenaga, *Euskal herritarren burujabetza*, 56 or). Orain, hemen, hau da interesatzen zaiguna: euskara, eta batez ere euskararen egoera. Ez du merezi 1802an Espainiako Gorteek esandako pellokeriari erantzunez denbora galtzea, baina interesatzen zait, hori bai, gaur egun euskarari ematen zaion garrantzia. Eta hau ikusteko gaurko Konstituzio Espainolak hizkuntzei buruz dioena ekarriko dut hona:

1. **Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainol guztiek jakin behar dute eta erabiltzeko eskubidea dute.** 2. **Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan beraien Estatutuei dagozkien eran.** Eta zer dio, bada, gure Erkideko Estatuak? **Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.**

Beraz, harriztekoa!, euskaldunok bi hizkuntza ditugu: bata, espainola, jakin beharrekoa, eta bestea, euskara; baina hau maila txikiagokoa da, ezagutzaren linboan ia ezerezean utzi digutena. Honela gaude gaur egun: euskara espainolaren eta frantsesaren menpe bizi da. Hau da diglosian.


Foruak kendu eta gero, euskaldunok erdi galduta bizi gara. Gurea defendatzeko indarrrik gabe. Egia da, euskara suspertzen jende asko aritu eta ari dela aztarrika, eta Joxean Artze, txalapartari eta poetak, ahalegin honetan jarraitzeko ahaleginetan, **“Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik”** esan zigun. Esaldia toki askotan ikusi duzue idatzita. Baina egia al da? Egia zela uste genuen eta horretan dago oraindik jende asko. Baina... esaldi hori poeta baten esaldia besterik ez da, eta zientziaren laguntzaren beharrean geunden. Zorionez, etorri zitzaigun laguntza. Txillardegik urteak egin zituen gaia aztertzen eta, orain dela hemezortzi urte, liburu hau argitaratu eman zuen: *Hacia una Socio-Lingüística Matemática*. (Zailtasun bat du liburuak: irakurtzeko matematika pixkat jakin behar dela). Menpean bizi diren herrialde askotara itzuli zuten liburuak. Galesko Unibertsitateko Ned Thomasek dio Txillardegi Sozio-Lingüistikan jakintsu bezala erbestean ere ezaguna dela aspalditik. Hemen, berriz, ez dut uste askok halako estimua diotenik.

Eta zer dio Txillardegik? Hauxe: **hizkuntza bat ez da galtzen dakitenek hitz egiten ez dutelako, ez dakitenek ikasten ez dutelako baizik.** Juxtu Artzek esaten zuenaren kontrakoa. Esaten digu azken urteetan desagertzen joan direla euskara bakarrik zekiten hiztunak. Ondorioz, euskara erabiltzeko beharra desagertzen joan omen da. Euskaldun ia denek (ala denek?) espainiera edo frantsesa ere badakitelako. Eta oraindik ere euskara erabiltzen bada arrazoi subjektibo hutsarengatik omen da, batzuek behar ez izan arren euskaraz hitz egiten ahaleginak eta bi egiten dituztelako. Euskara desagertu nahian lanean ari direnek (eta uste baino gehiago dira) euskara fase honetara eramateko ahaleginak dira gure hizkuntzaren hilkutxa prestatuz. Egia esan, garai batean gure hizkuntza basatia eta kulturaren kontrarioa zela esaten ziguten (Mariana lekuko). Orain diplomatikoagoak dira. Ez dute esaten euskarak ezer balio ez duenik, erdarak zenbat balio duen baizik.

Zortzi pertsonak osatzen duten lagunartean zein hizkuntza erabiltzen duzue horietatik zazpi euskaldunak bazarete eta bat erdalduna?


Baina errua erdaldunena bakarrik ote da? Inguruetakoek egin diguten eta oraindik egiten diguten kaltea badakigu baina ahaztu egin dugu kalte hori dena gure bertako klase nagusien konplizitatez egin digutela. Axularrek salatzen zuen euskararen egoera euskaldunok guk geok merezi bezalakoxea zela. Eta Koldo Mitxelenak: euskaldunontzat hizkuntza altxor bat da baina, aldi berean, enbarazua ere bai, ez baitakigu berarekin zer egin.

Utz ditzagun, orain, atzekoak eta ikusi zer gertatzen den gaur egun. Ibai Iztuetak 2015ean argitaratu zuen *Cultura vasca vs Euskal kultura* liburuan (2014 defendatu zuen doktorego-tesiaren moldapena da) azaltzen den gertakizun bat ekarriko dut hona, nire iritziz ondo baino hobeto adierazten duelako euskararekin zer egiten dugun. Patxi Baztarrikak, garai hartan EAJK gidatzen zuen Eusko Jaurlearitzako Hizkuntza Sailburuak, honela idatzi omen zuen 2009an: Euskararen plazan askotan nabarmentzen dira *minimalistak* (edo *moteltzaleak*) eta *maximalistak* (edo *lasterzaleak*). “Arauek hau eta beste egitera behartu beharko lukete, eta ez dute halakorik agintzen”, diote *maximalista abertzaleak*; hauentzat euskararen alde egiten den ia guztia beti da gutxi. “Arauk gogorregiak dira, inposizioaren bidean daude”, esaten dute *minimalista moteltzaleak*; hauentzat euskararen alde egiten den ia guztia izan ohi da gehiegi. Honetan ere (*maximalista* eta *minimalistean* artean esan nahi dut),



◀ Txillardegui.

▼ Joxean Artze.



beste arlo guztietan bezala, oreka aurkitu behar da. Eta soluzio hau proposatzen du Baztarrikak: etengabeko presio, exijentzia eta aginduen bidea baino askoz eragingarriagoa izango zaigula pertsuasioa eta erakargarritasuna erabiltzea euskararen alde”.


Eta aurreraxeago honela jarraitzen du Ibai Iztuetak: “Bada, kontua da pasarte hau argitaratu eta hiru urtera, 2012ko hauteskunde kanpainan zehar, Bilduk gidaturiko Gipuzkoako Diputazioak prentsaurrekoak euskaraz ematea (kazetariei itzultzaileak eskainiz) nahiaz euskararen gaineko araudi bat betearazteko asmoa agertu zuela. Itxura denez, ez zen Bilduk idatzitako araudia, baizik eta bere garaian EAJ alderdiak berak adosturikoa eta artean betearazi gabe zegoena. Aldundiak berekin lan egitekoak izango ziren enpresa pribatuei harremanak neurri batean behintzat euskaraz mantentzea ahalbidetuko zuen berme txiki bat eskatzen zien. Ordea, erabakia hedabideetan agertu zelarik, jakina denez, EAJko ordezkariak, bai artean Lehendakariagai zen Iñigo Urkullu jauna bai Markel Olano Gipuzkoako Ahdun ohia, araua betearaztearen aurka agertu ziren, publikoki salatuz halako arau bat betearaztea *inposizioa* zela eta asakatasunaren aurka zihoala, euskarak ez zuela salbatzailerik behar, espainolak bai, nonbait. Baztarrikak marrazturiko eskeman, *minimalista motelzaleen* diskurtsoa bereganatu zuen, hortaz, EAJk. [...] ez da ahaztu behar EAJren bozka emaileen erdiak baino

gehiago [berriz diot: erdiak baino gehiago] erdaldun elebakarrak direla eta, bestetik, EAJri Bilduren aurrean garaipena emango dioten bozak EAJren eta PSE espainolzalearen artean ezbaian izaten diren horiek direla.” EAEen erakargarritasunaren diskurtsoa, gaur egun, “euskararen inposizioa vs euskaraz ez jakiteko askatasuna” delako marko atzerakoi eta zeharo inzibikoan txertatzen da. Hala dio Iztuetak.

Franco 1975ean zendu zen, eta hara non gauden oraindik! Asko eskatzea al da Euskal Herrian euskaraz bizi nahi izatea? Hori nahi nuke, baina... ez didate uzten. Euskal Herrian erosoan bizi direnak ez gara euskaldunok, euskara pixka bat ulertzen duten erdaldunak baizik. Urte asko dira Madrilgo *El Imparcial* egunkariak idatzi zuela “*Quitarles los Fueros no es suficiente, tenemos que quitarles ahora su lengua*”. Ez dut pribilegiarik nahi, espainolek dituzten hizkuntz-eskubide berberak eskatzen ditut. Nirea nahi dut. Euskara salbatzeko Frantziarekiko eta Espainiarekiko kateetatik askatu beharrean gaude. Hau politika da, bai. Baina euskara ez dela politizatu behar diotenei erantzungo nieke ea frantsesaren eta espainolaren nagusitasuna ez al den politikoa. Konstituzio espainolak dioena ez al da politika?



COVID-19arentzako gutuna



Alkizar maiteok, nahiz eta hasieran beste ideia bat neukan aurtengo aldizkarirako, egokitu zaigun garai honetan hauxe besterik ezin dut egin: gure bizimodua betiko aldatu duen Covid-19a aipatu. Covid-19 da gaixotasunaren izena; Koronabirusa, berriz, gaixotasun hori sortzen duen birusa. Baliteke 2020 urteko ale honetako kolaboratzaile batek baino gehiagok iritzia ematea gai honen gainean. Izan ere, 2020 honek oroitzapen ahaztezin bat utziko digu, dudarik gabe, eta kalte handiak ekarriko dizkigu, ekonomikoak eta bestelakoak, eta, gainera, ezarri diguten konfinamendu edo itxialdi derrigorrezkoak bitzta moztuko digu nahitaez

Gogoratu behar dugu Txinako Wuhan-en urtarrilaren hasieran hasi zen pandemia honek, hau da, hainbeste egunetan geure etxetan konfinatuta eduki gaituen birus honek lortu duela gu denbora guztian egotea pentsatzen non ote dagoen zomorro ospetsua (traidore eta ikusezina da gero), beldurrez niri edo nire familiako beste bati erasoko ote dion, eta geure buruari galdera berdinak egiten: Zer pasako da etxetik ateratzen garenean? (honetatik ateratzen bagara); Zenbateko distantzia gorde beharko dugu maite ditugun pertsonekin eta lagunekin?; Noiz egin ahal izango dugu bitzta normal bat, kutsatzeko arriskurik gabe?. Epidemiologo batzuek esaten dute urte bat edo urte eta erdia beharko dela txertoa eraginkor bat lortzeko. Nola ohituko gara egoera hauetara? Ihes egingo ote diegu familiakoei eta lagunei. Edukiko ote dugu tabernetara eta jatetxetara joatea? Eta ze kondiziotan?

Baina, aurrera egin aurretik, lerro hauetan ez nituzke kutsatutakoak ahaztu nahi (pila bat dira mundu osoan, kopurua milioi bat izatera irits liteke; sendatu direnak, ordea,



milaka dira, sintomarik gabeak kontuan sartu gabe), batez ere adinekoren egoitzetakoak eta abar. Hemendik goraintziak bidaltzen dizkiet, maitasunez bidali ere, birusaren kontrako borrokan aritu eta ari diren guztiei: Medikuei, erizainei, osasun-langileei, kamilleroei, suhiltzaileei, Babes Zibilari, boluntarioei, segurtasun-indarrei eta abarrei. Horiek gabe orain ez ginatke lerro hauek idazten ariko. **ESKERRIK ASKO** bihotz-bihotzetik; izan ere, bizitzen ari garen urduritasunaren eta ziurgabetasunaren ondorioz, egun amaiezinak eta bete ezin diren amets ezinezkoak betetako insomnia-gau beldurgarriak izan dituzte eta.

Esan behar dugu, baita ere, birus honek erakutsi dizkigula geure etorkizunean eragin handia izango duten gauza asko; horietako batzuei ez genien garrantzirik ematen, gauza txikiak zirela pentsatzen baikenuen. Esaterako: kafe bat hartzea, paseatzea, maite genituenei behar bezalako despedida egitea, auzoekiko adiskidetasuna, edo, besterik gabe, gure betiko adiskideak edo senitartekoak besarkatzea. Izan ere, orain ordenagailu edo telefonoaren bitartez bakarrik egon baikaitzke haiekin, lagunak elkartzea erabat debekatuta dago eta. Hau ere esan behar dugu: Pandemia honek ikusarazi digu oso ahulak garela, nahiz eta guk beti uste izan dugun munduko handienak eta onenak ginela. Garbi geratu den beste gauza bat da ze adiskidantza dagoen bikote gazte eta adinekotan, zeren ez baita erraza elkarrekin ondo ematea hain luze dihoan konfinamendu honetan. Eta, baita ere, bertan behera geratu direla festa-, kirol-, kultura-eta erlijio-ekitaldi guztiak, batik bat jende asko biltzen dutenak.

Pandemia honek beste gauza bat ere erakutsi digu gizartearen gainean, eta da pertsonen arteko aldeak ikaragarri handitu direla; eta ikusi dut (baita psikologo askok ere) ahulenen artean joera handia dagoela berriz fedeari heltzeko, beharbada beldurrarengatik edo beste munduarekiko errespetuagatik. Bestalde, eta konfinamenduaz ari naiz, azpimarratu dezagun ez dela gauza bera egotea berrogei metro koadroko etxebizitza batean, burnizko

hesia duen leiho bakarrarekin eta hiru edo lau umerekin, edo baserri batean, atsegin hartzeko, lan egiteko edo, besterik gabe, eguzkia hartzeko terrenoak ditu eta.

Badakit Covid 19 honek ondorio psikologiko, fisiko eta ekonomiko asko utzi behar dizkigula, eta gaitz-erdi litzateke gure bizitzari kalte gehiegi ez egitea, nahiz eta nik neronek hala izango dela uste dudana, alegia, baietz, batik bat konfinamendutik atera ondoren.


Lerro hauei bukaera eman nahi diet desio batekin eta esperantza batekin, ze, esaten den bezala, horixe baita galtzen den azken gauza. Desioa, hauxe: atzera begiratzaren dugunean, dena izatea pasatako amets txar edo gaizto bat. Esperantza, berriz, gehiago ez gertatzea oraingo egoera honen modukorik.

Egunero arratsaldeko 8etan egiten dugun bezala, txalo luze-luze bat gure bizitzako une zail honetan lagundu dигuten guztientzat eta, aldi berean, desio bat: gu laster ikustea eta elkar besarkatu ahal izatea, orain arte egin dugun bezala, pandemia honen ondorioz gure artetik joan diren guztiez ahaztu gabe.

Eta azkenik, eskerrik asko Jose Mari Aranzaberi, Alkizako Udalarari eta nere lagun handia den Iñaki Irazabalbeitia alkateari, eta aldizkari honetako lantalde osoari, nire sentimenduak eta ideiak adierazten uztegitik "Ollategitik" aldizkariaren 2020ko ale honetan.

ESKERRIK ASKO BIHOTZETIK.

■ **Juan Bautista Aranzabe Balciscueta**
"Mate"





Bi artista elkarlanean: Unai eta Markox

Xenpelar bertsolariak esan zuen sutan jartzean probatzen dela nolakoa den eltzea. Lerro hauek idazterakoan behintzat, oraindik pasatzen ari garen "pandemia" delako honek, mundu guztiari bezala, baita alkizarroi ere sutan jarrarazi dizkigu, besteak beste, pazientzia, erresistentzia eta elkarbizitzaren eltzeak. Eta gisa honetako kontuetan beti gertatzen da, nahiz eta protagonismoa biztanle guztiena izan, batzuek jokatzen duten papera besteena baino gehiago nabarmentzen dela, denon ongi-izatean duen eraginaren-gatik. Ziur, asko direla saiatu direnak guztiok hobeto bizi gintezten. Baina gaur orrialde hauetara bi ekarri nahi izan ditugu. Beraiekin berrogeialdian eta ondorengo asteetan bizi izandoaz hitz egingo dugu. Bat hemen jaioa da, orain arteko bizi osoa hemen eman duena, alkizar peto-petoa: Unai Sorarrain Urruzola, sarri era guztietako tramankuluz inguratuta ikusten duguna, eta ia denetik egiten dakiena, baina bereziki inguruko bizitza alaitzen saiatzen dena. Besteak Irun du sorleku, baina oso denbora gutxian, oso gutxi bezala lortu du herritar gehienon estimazioa poltsikoratzea. Agian egia izango da pertsonak estamuren bidez irabazten direla, baina ez, badakigu ez dela hori, edo ez hori bakarrik behintzat, zeren askok badakizuen arren, esan dezagun gure protagonista, Esne Beltza taldeko kantari gisa, Euskal Herri osoan oso ezaguna izateaz gain, gaur egungo Ostatu jatetxearen arduradun nagusia dela, sekulako arrakasta lortu duena benetako eltzeak benetako suaren gainean jarriaz Alkizako sukaldetik garrantzitsuean. Markos Esteban da, baina askok Pini deitzen diote.



Ezertan hasi aurretik, zuretzat galdera: Markos edo Pini, nola nahi duzu deitzea elkarrizketa honetan zehar?

Markox: Berdin dio. Egia da gehienek Pini deitzen didatela, baina Markox ere gustukoa dut. Gainera Markox deitzen didatenean nire ama ekartzen dit gogora, iruditzen zait bera ari zaidala hizketan.

Oso ondo ba. Guk ere Markox deituko dizugu orduan. Kontaiguzue zergatik izan duzuen horrelako oihartzuna konfinamendu garaian? Zer egin duzue?

Markox: Bideo-klipen kontua izan da arrakastatsua, zalantzarik gabe. Gauza da Esne Beltza taldearentzat bi bideo-klip egin behar genituela. Pentsatu nuen taldeko bakoitzak bere etxean grabatu behar zuela, eta Unairi laguntza eskatu nion. Unai zerbait oso txukuna egiten lagundu zidan, baina ez zen Esne Beltzarentzat balekoa izan, haiek irudi estatikoak behar baitzituzten, hau da, mugimendurik gabekoak. Guri, berriz, mugimenduzko irudi haiek oso erakargarriak iruditu zitzaizkigun, eta pentsatu genuen herrian zerbait egin genezakeela haiekin.

Unai: Orduan, herriko gazte batzuei proposatu genien Pinirekin egindakoa base gisa erabiliz, euren irudiekin antzeko zerbait egitea, eta erantzuna ikaragarria izan zen. Denek esan zuten baietz. Horrela osatu genuen hain arrakasta handia izan zuen lehen bideo-klipa.

Eta nola zabaltzen da horrelako bideo bat? Nola egiten da hainbeste jendearengana iristeko?

Unai: Lehendabiziko hori Esne Beltza taldeak zabaldu zuen. "Atari" koei ere beraien bidez iritsi zitzaien, eta sare-sozialak badakizu nolakoak diren. Konturatzera, "Argitzeraino" kantuarekin eginiko lehen bideo honek 6000 bisita zituen. Nahi baduzue, hementxe duzue QR kodea deitzen den horietako bat, eta horrela bideo-klipa ikusi ahal izango duzue. Oso erraza da.



Beste bat ere bagenuen prestatuta, "Sueños de color" abestiarekin hain zuzen ere. Orduan herriko nire lagunekin hitz egin genuen, ea posible ote zen lehen gazteekin egin genuen moduan, oraingoan helduekin egitea. Kasu honetan ere harrিতa geratu ginen erantzunarekin. Hogeita lau pertsonak eman zuten izena parte hartzeko asmotan, eta azkenean Piniren basea zena 5 segundutara soilik mugatu zen. Beste guztia herriko heldu horiek osatu zuten.

Horrek ere arrakasta izan al zuen sare-sozialetan?

Markox: Bai, bai, zalantzarik gabe. Gainera, kontuan hartu behar da honetan Xabi Solanok hartu zuela parte. Herriko "artista" guztiak oso gustura geratu ziren.

Unai: Nik azpimarratuko nuke gisa honetako zerbaitek sortzen duen giro ezin hobea parte-hartzaile guztien artean. Primeran pasatu zuten. Sekulako ilusioa piztu zuen guztiengan, eta ilusio txiki haiek oso garrantzitsuak dira bizitzan.



Bideo-klipen bi irudi.

© Unai Sorrain



Gai honetan ezjakitun garenontzat, zein da horrelako bideo-klip bat sortzearen prozesua?

Unai: Lehendabizi abestia aukeratu behar da, eta hori Markoxek eta nik egiten dugu.

Markox: Jarraian, jendearekin komentatu genuen, eta parte-hartzaile izango zen bakoitzari jakinarazi genion zein zen zegokion kanta-zatia. Baina zein irudi grabatuko zuen, nola, norekin, eta gainerako gorabehera guztiak berak erabaki behar zituen, berak nahi zuen moduan.

Unai: Horrek berebiziko grazia izan du, gainerako parte-hartzaileek bideoa osatu eta plazaratu arte ez baitzekiten zer egin behar zuten besteez. Hartutako sorpresak handiak izan ziren, eta pentsa, barre-algarak, sekulakoak.

Zenbat bideo-klip egin zenuten guztira?

Markox: Uste dut sei izan zirela. Bai, sei izan ziren.

Utz dezagun alde batera orain bideoen kontua, eta hitz egin dezagun Alkizan konfinamendu garaiaiko gorabeheren inguruan. Jakin, badakigu Markox, herriko jendeari jakiak eskuratzeko orduan asko lagundu diozula. Nola moldatu zara?

Markox: Kontua da konfinamendua hasi eta gutxira konturatu nintzela bagenuela tabernan alferrik galtzera zihoan janari dezente. Aprobetxatu nahian, hasi nintzen horiekin janariak prestatzen eta eskaintzen. Orduan batekin eta bestearekin hitz eginda, jabetu nintzen bazeudela herritarrak egoera hartan eroso sentitzen ez zirenak kotxea hartu eta erosketak egitera joaterakoan. Bi interes elkar-tzen ziren, jendearena batetik eta nirea bestetik, modu horretara neuk ere mugimenduan jarraitzen bainuen, eta tabernak zituen gastuei aurre egin ahal nien.

Fruta eta haragia ekartzeaz ere arduratu zinen, ezta?

Bai, bai, baina horiekin ez nuen irabazirik izaten, erositako prezioan saltzen baintuen. Egia esan, hasieran galdu eta dena egiten nuen, Unai jabetu zen arte ez nuela bez-ik kobratzen. Baina prestatuko janariarekin, horrekin bai, horrekin irabazten nuen, eta garbi esan behar dut horri eta herriko jendearen jarrerari esker ahal izan ditudala berriro Ostatuako ateak zabaldu.

Markoxen ahalegina asko eskertu zuten herritarrek.
© Unai Sorarrain

Herriko jendea aipatu duzula-eta, nolako erantzuna jaso duzu herritarrengandik?

Primerakoa, aparta. Herriko biztanle guztien gehiengo batek erosi du benetan behar zuenean baino gehiagotan. Ziur naiz familia batzuk beharrengatik baino gehiago erosi dutela herriko Ostatuari laguntzeagatik. Oso eskertua nago.

Une honetan abuztuan gaude, eta "pandemia"ren itzala oraindik gainean dugu. Nola ikusten duzu Ostatuaren etorkizuna?

Ekainean eta uztailan ondo egin dugu lan. Une honetan ondo ari gara lanean, baina geroari begira jartzen naizenean, beldurtu egiten naiz.

Zergatik?

Lehendabizi, egoera ekonomikoa oro har oso gorabeheratsua delako. Orain dugun langile kopurua mantendu ahal izateko, ia asteburu oro jatetxea beteta edukitzea behar dugu, bestela ezin da guztien soldata ordaindu. Esaten dizut, oraingoz ondo ari gara, baina geroan zer gertatuko den ezin da jakin, gauzak denbora gutxian asko aldatzen ari baitira. Ekonomikoki presio handia da pertsona bakarrarentzat sei soldatez gain, era honetako zerbitzu batek beharrezko dituen azpi-egitura guztiak mantentzea: generoa, argia, gasa, aseguroak, zergak...

Ez al duzu laguntzarik izan?

Bai. Udalaren aldetik bai, jaso dut, ez baitidate alokairurik kobratu. Eta lehen esan dudan moduan, herriko jendea izan da gehien lagundu didana.





Unai, zu zinegotzi zara. Jakin ahal izan dugu udalaren aldetik bono batzuk banatzeko asmoa duzuela herritarren artean Alkizako bertan erabili ahal izateko. Argituko al diguzu kontu hori?

Bai, gustura gainera. Dagoeneko dakizuen moduan, aurten ez da herriko festarik izango. Hori dela eta, pentsatu genuen hemezortzi urtetik gorako biztanleen artean hamar euroko bina bono banatzea, bat Ostatu jate txean, eta bestea Inazio Urruzola txakolindegian erabili ahal izateko. Helburua da, kontuan izanda festak ezin izango ditugula betiko erara ospatu, gutxienez beste era batera ospatzeko aukera eskaintzea.



▲ Hauek dira hemezortzi urtetik gorakoei helaraziko zaizkien bonoak.

© Unai Sorarrain

Orduan, bono horiek festa egunetan erabili behar al dira?

Ez, ez. Bonoak abuztuaren amaiera aldera banatuko dira, eta urte honen abenduaren 31 bitartean erabili ahal izango dira.

Beraz, afaltzeko edo bazkaltzeko dira, ezta?

Bonoak hamar eurokoak izango dira, eta osotasunean erabili behar dira. Garbi ulertzeko, bono horiekin ezingo da kafesne bat hartu. Aholkatzen dugu bazkari edo afa-rietarako erabiltzea, bai. Azpimarratu nahi dudana beste kontu garrantzitsu bat da, bai Ostaturkoek eta baita Urruzola txakolindegikoek ere beherapen berezi bat egingo dietela bonuen erabiltzaileei.

Nola, nola? Azaldu hobeto hori, mesedez.

Adibidez, Pinik 40 euroko "degustazio" menu bat baldin badu, prezioa 35 eurora jeitsiko du, eta bonoa erabiliz gero, herritarrak azkenean ez du 25 euro baino ordaindu behar.

Ekimena arrakastatsua izatea espero al duzue?

Bai, bai, hori espero dugu behintzat. Ziurrenik ez da gertatuko, baina gustatuko litzaiguke banatuko diren bono guztiak erabiliak izatea.

Mila esker, eta segi mugimenduan, "artistak".



■ Imanol Lizardi



Alkizako Kabia Gunea

PROIEKTUAREN NONDIK NORAKOAK

Alkizako Udalak, herriko eragileekin elkarlanean, artistek hausnartu, sortu eta esperientziak partekatze beka bat sortu zuen 2018an: **SORMENAREN KABIA**.

Ekimen honek agerian utzi du landa-eremuko herri txikitian proiektu artistiko ederrak gauzatu daitezkeela, aurtengoa, hain zuzen ere, **SORMENAREN KABIA**ren hirugarren edizioa dugu.

SORMENAREN KABIAK Alkizako herri mugimendua suspertzeko ekintza kultural eta sozialen sustatzailea ere izan nahi du. Hala, Alkizako Udalak eta eragileek herri-bizitzari hauspoa emateko beste pauso bat ematea erabaki dute. Herriko bihotzean, plazan bertan kokaturik dagoen **ALKIZAKO KABIA GUNEA** sortu dute.

ALKIZAKO KABIA GUNEA bisitari eta herritarrentzako harrera-gunea baina gehiago izango da. Alkizak bere osotasunean eskaintzen duenaren erakusleioa izateaz gainera, ezagutzak partekatze, herritarrak harremanetzeko eta ekintza kultural eta sozialak antolatze gune bat ere izango da.

NORENTZAKO

ALKIZAKO KABIA GUNEAK edonorentzako atea irekita izango ditu: **BISITARIEI** ongi etorri egingo zaie eta **HERRITARREI** euren sormenaren erakusleioa eskainiko zaie.

ALKIZAKO KABIA GUNEAREN HELBURUAK

Alkizako erakusleioa izango da

Alkiza paraje ederrez ingurutarik dagoen herri ederra baino gehiago da. Alkizak aisialdirako hamaika aukera es-



kaintzen ditu: naturaz, gastronomiaz eta kulturaz gozatzeko parada ematen die bertakoei zein bisitariei ere.

Alkiza Euskal Herriko eskaintza turistikoan txertatu nahi dugu. Asko dira Alkizaren ezaugarri bertsuak dituzten eskualdeko zein lurralde mailako udalerrak. Hernio-Gazume mendigunea ezagutu nahi duenak, baina, Alkizan aurkituko du Kontserbazio Bereziko Eremuaren gakoak ulertzeko dagoen Interpretazio Zentro bakarra. Alkiza dugu Herniora sartzeko atea.

Alkizako plazara iristen denak herriak turistikoki eskaintzen duena ezagutzeko modua izango du **ALKIZAKO KABIA GUNEA**N: Ur Mara Museoa, Lete Nekazaletxea eta Apartamentuak; Alkizako Herri Ostua, Inazio Urruzola Txakolindegia eta Fagus Alkiza Interpretazio Zentroa.

Herrian sortutako erakustoki eta saltokia

Herritarren artean kulturari, sormenari eta jakintzari lotutako pertsona trebeak ditugu. Alkizar hauei eta nahi duten herritarrei euren lanak ikusgai eta salgai jartzeko aukera emango diegu. Halaber, **SORMENAREN KABIA** proiektuan parte hartu duen sortzaileek euren lanak ikusgai eta salgai jarri ahal izango dituzte

Alkizako herri dinamika suspertzeko gunea

Gune hau alkizarrentzako bilgune erreferente izatea nahi dugu. Bertan ideiak, esperientziak, kezak eta pentsamenduak partekatzea lortu nahi dugu. Herriaren ezaugarriak ardatz moduan hartuz, alkizarrak ekitaldi kultural



eta sozialen ikus-entzule bakarrik ez, antolatzaile ere izatea desira dugu.

Ekimen honetan herritarrak eragile nagusiak izango badira ere, ALKIZAKO KABIA GUNEAren filosofiarekin bat datozen kanpoko proposamenek ere tokia izango dute.

Sormenaren kabiko artistentzako lanerako gunea

SORMENAREN KABIA beka irabazten duten artistentzako lanerako tokietako bat ere izango da. Artistak Alkizan dauden bitartean espazio honetan landuko dute euren proiektuaren zatiren bat. Hartara, herritarrek artistekin zuzeneko harremanak izateko aukera izango dute.

Alkiza euskararen arnagunea

Alkiza herri euskalduna da eta bere hizkuntzan, euskaraz egin nahi dio munduari. Euskal Herritik mundura irekitako erakusleihu handi bat izan nahi du Alkizak eta gainerako hizkuntzak baztertu gabe, euskara beti egongo da presente.

Arnagunea da Alkiza euskararentzat eta Euskal Herri osoko euskaldunontzat. Euskara da nagusi herrian, eta naturala, normala, erraza da bertan euskaraz bizitzea. Hizkuntza gutxitua den aldetik, arnagune gutxi ditu euskarak, eta horietako bat da Alkiza. Hortaz, gurera datozenei, geure hizkuntza, geure kultura ezagutaraziko diegu.

Alkizako kabia gunearekin harremanetan jartzeko

ALKIZAKO KABIA GUNEA hobeto ezagutu nahi duenak edo ekimenean parte hartu nahi duenak, astean zehar goiz eta arratsaldez gunea irekita aurkituko du:

goizez 10:00etatik 12:00etara

arratsaldez 16:00etatik 18:00etara

Bestela, deitu **688 604 466** zenbakira edo bidali mezu bat kultura@alkiza.eus helbidera.

■ Edurne Ayuso





Sexuaren argi berdea

Udaberri bukaera, eguzkia Hernio atzean ezkutatu da jada eta ilunak hartu du zeruaren nagusigoa. Baratza aldera atera, eta hara! Zoko batean argi berdexka ñimiño bat dir-dir. Ipurtargia!

Poza hartzen duzu horrelakoetan, ez baita ikuskizun egunerokoa. Izan ere, baserri giroan bizitakoei entzun izan diet esaten 'Ipurtargia? Lehen gehiago zitxion! Susmo hutsa jakina eta susmo guztiak bezala ustela gerta zitekeen. Ez da hau kasua eta datu zientifikoek ere noranzko horretan apuntatzen dute.

Arrazoiak? Neurri batean betikoak, beste animalia batzuei ere eragiten dietenak: lurraren erabileraren aldaketa eta ondorioz habitat egokien galera eta pestizidak. Alabaina badago beste arrazoi inportante bat. Ipurtargiek beren argi-seinaleen menpekotasuna dute ugaltzeko. Beste animalia batzuk koloreak edo kantuak usatzen dituzte ligatzeko. Ipurtargi emea argiaz baliatzen da bere Romeo erakartzeko eta inguruan argi artifizial gehiegi baldin badago bere seinaleak tapatuta gelditu daitezke.

Ipurtargia kakalardo-klase bat dela esaten badizut, harriturik begiratuko didazu seguruenik. Ba bai, horrela da. Ipurtargi arrari erreparatzea bestetik ez dago. Alde guztietatik begiratuta kakalardo baten antza du, behi-gorzetan ibiltzen diren horien oso antzekoa baina marroixka beltza izan ordez. Alabaina emeei begira ez zenuke horrelakorik esango. Edozein intsekturen hartzat hartuko zenuke.

Esatea ahaztu zait gurean eta Europa osoan bizi den ipurtargia *Lampyrus noctiluca* bataiatu zutela zientzialariek. Ipurtargi honek dimorfismo sexual izugarria du, alegia, arrak eta emeak elkarren antzik ere ez dutela. Arrak hegala dituzte, kakalardoengan bezala kanpokoak gogora eta zurrinak direlarik. Emeek ez dute hegala, larba itxura dute eta arrak halako bi izan daitezke tamainaz.

Gorago esan bezala ipurtargiak argia baliatzen du ligatzeko. Emeek abdomeneko atzen hiru segmentuetako be-

heko partetik argi berdexka igortzen dute, arrak erakartzeko. Bi orduz egingo dute distira, eta, ondoren, ezkutatu egingo dira hurrengo gauera arte, baldin eta lige egokirik arrimarazi ez badute. Lortutakoan bukatzen da distira. Emeek 10 gau iraun ditzakete jarraian kortejatze-lan horretan.

Arrek emearen argia 50 bat metroko distantzietatik ikus dezakete. Emeek argia etengabe emititzen dute, nahiz eta gure begietara iruditu dir-dir egiten dutela ematen badu ere. Abdomena alde batetik bestera etengabe astinduz dihardutelako ikusten dugu horrela.

Baina, nola sortzen dute argia? Argia erreazio kimikoen ondorioz sortzen da eta zehazki, erreazio honen bidez: luziferina izeneko substantzia erreduzitua, luziferasa entzima katalizatzailearen bidez aktibatzen da eta oxigeno-arekin erreazionatuz, argia sortzen da. Azpimarratzekoa da, bestalde, erreazio horretan produzitako energia ia guztia argia dela; %2 bakarrik da beroa.

Arrek eme distiratsuagoengana hegan egiteko joera handiagoa dute. Apainagoa delako? Bai zera! Handiagoa delako eta arrautza gehiago dituelako eta arrak gene gehiago munduan barreiatzeko aukera handiagoa izango duelako.

Ipurtargiak belardi, bide-bazter, hesi, baso inguru eta sastrakadietan bizi dira. Zer jaten dute? Ba helduek barrau egiten dute eta ugaltzea da beren zeregin bakarra. Larbak, aitzitik, molusku-ehiztari sutsuak dira, barraskilo eta bareak dituzte gogoko. Erne bizpahiru urtez bizi daitezke larba moduan! Badugu baratzaileok ipurtargia estimatzeko beste arrazoi sendo bat!

Lerro hauek eskutara iristen zaizkizuenean ipurtargirik ez duzu ilunabarrean ikusiko. Ez galdu esperantza 2021ko udaberri bukaeran hortxe aurkituko dituzu zuren inguruan ligatu asmoz!

■ Inaki Irazabalbeitia



Ipurgiek dimorfismo izugarria dute. Irudian arra (ezkerrean) eta emea (eskuinean). (Zdeněk Chalupa-ren irudia).



Ipurgie emea. Abdomeneko atzen hiru segmentuetan sortzen du argia luziferina erreduzituz oxigenoarekin erreakzionatzean. Energia osoaren % 2a baino ez da beroa. (Jasja Dekker-en argazkia).



Larba barraskilo bat jaten. Larbek jariakin bat injektatzen dioten barraskiloari. Jariakinak moluskuaren ehunak hausten eta disolbatzen ditu eta horrela larbak jakia prest dut zurrupatzeko. (Heinz Albers-en irudia).



Ipurgie emea. (Christophe Quintin-en irudia).



Baina, nortzuk gara gizakiok benetan?

Ekainaren 23a zen, San Juan bezpera, eguraldi eguzkitsua eta beroa egiten zuen. Gure buruan zenbait galdera genituen bueltaka: **Baina, nortzuk gara gizakiok benetan?, Bizitzeko gorputz fisiko baten beharra dugun eta 5 zentzumenez baliatzen garen izaki bizidunak al gara?** Edo, zerbait gehiago ere bagara?... Pentsamendu horietan murgildurik, “Xorieri mintzo zen” abestiaz oroitu ginen. Uztarizko Mixel Labéguerie kantautoreak idatzi eta Erramun Martikorenak hainbatetan kantaturiko kantu triste bezain eder honetaz:



*Xorieri mintzo zen
Mintzo zen errekeri
Oihaneko zuhaitzeri
ta zeruko izarrerri
Mintzo zen haizeari
Xoro batentzat zaukaten
Xorieri mintzo zen
Xoro batentzat zaukaten.*

*Ez zakien irakurtzen gizonen liburutan
Bainan ongi bazakien zeruko seinaletan
Zeruko seinaletan ta jenden bihotzetan.
Xorieri mintzo zen...*

...
*Hilobian ezartzean, haizea zen gelditu,
xoriak ziren ixildu, zerua zen goibeldu,
zerua zen goibeldu ta jendea oroitu.
Xorieri mintzo zen...*

Horrela geundela, kantu horren harira, aurtengo urtarri-laren 23an gertaturiko gertakari bat etorri zitzaigun burura:

Gure izeba zaharra, gure aitona zenaren arreba, duela 93 urte Bedaion sortua eta Zaldibiako baserri batera joana ezkondu, urtarileko egun horretan esnatu zenean, ez zen oso ondo aurkitzen. Horrela, etxeok, besteetan bezala, sendagileari deitu zioten eta sendagilea baserrira etorri zenean, izeba aztertu eta egin beharreko gauzak egin zituen. Bien bitartean, etxeok ukuluan zegoen astoa, bat-batean, arrantza hasi zen etengabe, inoiz ez bezala. Etxe-atariko zakurrak, aldiz, isil-isilik egon ziren eta joera hori arraroa zen etxeokentzat. Izan ere, astoak arrantza egiten zuenean, zakurrek ere zaunka etengabe egin ohi baitzuten. Hala, goiza igaro eta eguerdia heldu zen. Izebak bere seme-alaben goxotasunean bazkaldu zuen baina ez zuen oraingoan siestara joan nahi, sukaldean egon nahi zuen. Une guzti horretan, astoak arrantzaka jarraitu zuen isildu ere egin gabe eta zakurrak, berriz, muturirik, zerbait atzemango balute bezala. Baina azkenean, izeba nekaturik sentitzen zen eta seme-alaben laguntzarekin siestara sartu zen. Gainera, egun horretan, bertan, “kasualitatez” Extremaduran bizi den izebaren alaba zaharrena, lan kontuagatik, bere gizonarekin Gipuzkoara etorria zen. Horiek urrun bizi zirenez, urtean behin edo bitan etortzen ziren amarengana bisitan. Arratsaldeak aurrera egin ahala, izebak okerrera egin zuen eta astoak arrantza etengabearekin jarraitu zuen. Etxeko anai-arrebek, 112ra deitzeaz gain, arreba zaharrari ere deitu zioten amaren egoeraren berri emateko. Arreba zaharrak segituan baserrira joango zela azaldu zien eta etxeok harriturik gelditu ziren, Extremaduran izango zela uste baitzuten. Horrela, alaba zaharra etxera etorri zen eta han elkartu ziren seme-alaba guztiak, amaren ondoan. Halako batean, izeba hil egin zen eta etxeok astoa, egun osoan arrantzaka ibili ondoren, bat-batean isildu zen. Etxekoak zur eta lur gelditu ziren egun horretan bizi zituzten gertaera guzti horiekin: Astoaren eta zakurren jarrerekin (inoiz ez zitzaien horrelakorik gertatu), arreba zaharra “egun seinalatu horretan” bertan, etxean izatea ...



Ezkerretan, etxe-aurreko gereziondoa eta zuhaitzaren atzean, Leteko belazea belarra bildu berri. Han, urrun, Berraingo borda.
© Ainhoa Jauregi Otaño.



Berraingo borda zaharra.
© Ainhoa Jauregi Otaño.

Gertakari berezi guzti horiek aldi berean gertatzeari **sin-kronizitatea** deritzo eta ez dira “kasualitateak”, naiz eta guk urte askotan kasualitateak zirela uste izan. Baina urteetan bizitako hainbat esperientziek gero eta argiago uzten digute 5 zentzumenez baliatzen den gorputz fisiko harrigarri bat baino zerbait gehiago ere bagarela.

Gurean murgildurik segitu genuen eta sukaldeko leihotik begira jarri ginen. Orduan, miru gorri eder bat (*Milvus milvus*) ikusi genuen hegan eta etxe-aurreko gereziondoraino gerturatu zen. Ikusgarria zen hura ikustea! Zuhaitzaren ondoan, geldirik denboratxo batez egon zen airean eta bat-batean, buelta eman zuen eta belarra bildu berria zen Leteko belazeraino joan zen. Bertan, bizkor lur hartu eta zerbait harrapatu zuela zirudien. Segidan, gorantz abiatu zen, bere atzapar indartsu batean bildu gabe gelditu zen belar luze bat zintzilik zuela. Eta han joan zen, airean, Berraingo borda ingurura, hegaldi lasai eta ederra eginez. A zer hegazti zoragarria eta dotorea!

Halako batean, Berraingo borda zaharri zuzendu genion begirada eta berezia zela sumatu genuen: Hartziko horma sendoez aspaldi eraikia, bere egurrezko atearekin eta leiho luzearekin. Han ageri da, Hernio mendilerroaren magalean, denboraren etengabeko igaroari begira, bakar-bakarrik eta isil-isilik, belaze berdearen erdian.



Milvus milvus.

Une horretan, aspaldiko gertakari bat etorri zitzaigun burura:

Duela 35 urte, 10 urteko neskatila bat, Berraingo borda bezala aurkitzen zen, bakar-bakarrik eta isil-isilik, belaze berde baten erdian, aurrean zuen mendixkari so eginez. Neskato hura Oria haraneko herri txiki batean bizi zen eta bakarrik jolasean ibiltzea oso gogoko zuen. Arratsalde askotan egin ohi zuen bezala, ikastolatik ateratzen zenean, anaiarekin aitoren eta amonaren etxera joaten zen askaltzera, ordu horretan gurasoak lanean egoten baitziren. Amona umil eta maiteak eskainiriko kafesne-zopa goxoa meriendatu eta Oria ibaia-aren alde bateko ertzean zeuden eta egun oraindik dauden nekazari soro eta zelai berdeetan barrena joaten zen jolastera. Maitea zuen inguru hori, herriko beste hainbat txoko bezala. Garai hartan, Oria ibaia gaxorik zegoen, oso kutsatua egoten zen. Aitak, garai batean, ibaia bizitzez bete zegoela esan ohi zion. Beraz, ume hark, egunen batean, Oria garbi ikustea zuen amets; ur gardenarekin eta amuarrainez bete.



Horrela, 1985. urteko egun eguzkitsu batean, hain ondo ezagutzen zuen ibaiari so egin zion eta uraren joanari begira jarri zen. Ibaiak ur kopuru nahikoa zekarren egun horretan, eta halako batean, neskatxak ibaiaren beste aldean aurkitzen den mendixkari begiratu zion behin eta berriz. Aurrez aurre jarri zen mendixkari eta bertako magalean zeuden pinudiei so. Neskatila ez zen inoiz mendi horretan izan, ez eta mendiaren magaletan ere. Eta modu horretan, jolasen hasi zen, ohikoa zen bezala, bere intuizio eta imajinazio handiarekin. Era horretan, oso aitzinean, bertan gizakiak bizi izan zirela imajinatzen eta sentitzen hasi zen; eta segidan, oso gainetik, gizatalde haien irudi bat etorri zitzaion burura. Jarraian, zenbait gizaki mendiaren gainetik magalera jaisten sentitzen zituen. Agian, beste eginbeharren artean, ibaira amuarrainak arrantzatzerara jaitsiko ziren? Gizaki haiek mendiaren magal alde horietan askotan ibiltzen ziren. Neskatilak hori barru-barrutik ziurtasunez sentitzen zuen. Neskarentzat gizatalde haiek tribu moduko bat osatzen zuten, eta bertan, nahiko jende bizi zela ikusten eta sentitzen zuen. Gizaki haien jantziak oso aspaldikoak ziren, Erdi Arokoak baino askoz ere antzinagokoak. Baina gizatalde horretan bazegoen zerbait berezia: Umeak lotura bat sentitzen zuen hainbat kideekin. Eta horien artean, mutil gazte bat zegoen, berarekiko izugarritzko maitasuna sentitzen zuen. Horrela, mutilarengan pentsatzen jartzean, neskatxari bihotzaren taupadak bizkortu egiten zitzaizkion eta sabelean tximeletak izango balitu bezala sentitzen zuen. Sentimendu oso sakona zen hura, baina aldi berean bitxia ere bazen ume harentzat. Beste egun batean ere, aurrekoan bezala, mendixkaren inguru horri begiratu zion eta maitasunezko sentimendu berezi hura berriro agertu zitzaion, intentsitate handiz. Neskatila pixka bat kezkatu egin zen, emozio hark helduena baitzirudien eta bera ume bat besterik ez zen; ez zekien nola bideratu bizitzen zuen guzti hori. Beraz, lasaitzeko, guzti hori bere imajinazioaren lana izango zela pentsatu zuen eta hoberena, guzti hori uztea eta ahaztea izango zela erabaki zuen. Ordutik, ez zen gehiago horretan pentsatzen jarri eta urteak igaro ziren, ia, erabat ahaztu zuen arte.


Horrenbestean, 1987. urtean, neskatilaren ondoko herrikoa den eta arkeologian zaletasun handia zuen gizonetzko batek (urte batzuk beranduago, gizon hori neskaren euskarako irakaslea izango zen batxilergoan), mendixkaren gainean, egitura batzuk ikusi eta eroritako harresi baten arrastoak aurkitu zituen. Honek, Aranzadiko arkeologoei deitu zien eta lehenengo katak egin aurretik barku-formako errota bat topatu zuten. Modu horretan, indusketei hasiera ematea erabaki zuten. Horrela, 1994. urtean hasi ziren Basagain, Burdin Aroko herrixkaren indusketa-lanak.



Oria ibaia egun, duela 35 urte baino osasuntsuago dago.
© Ainhoa Jauregi Otaño.




Neskak, behin eta berriz begiratzen zion argazkian azaltzen den mendi inguruari.
© Ainhoa Jauregi Otaño.



Ume hark, antzinako jende haiek laranjaz inguraturiko eremu horietan askotan ibiltzen zirela garbi-garbi sentitzen zuen. Gezi berdeak Basagain herrixkaren kokalekua azaltzen du eta urdinak, aldiz, neskatilaren kokalekua. Basagain Iruratik.

© Ainhoa Jauregi Otaño.



Agian, antzinako gizaki haiek ibilbide horiek hartzen zituzten Basagainetik Oria ibaira jezteko, hain zuzen ere, egun, Anoetako Alliri baserria (egun, "Allegi" bezala ezagutzen dugu) aurkitzen den lekuraino?

© Google Earth

Ainhoa Jauregi Otaño.



Orduko neskatila hura ari da lerro hauek idazten eta ondo asko daki izan zuen gertakari berezi hura **ur tanta bat besterik ez dela** mundu osoan gertatzen diren milaka eta milaka, edo hobeto esanda, milioika esperientzia bitxi eta ezberdinen ozeano zabalean. Badirudi gure adimen arrazionalatik eta zientziatik at gelditzen direla esperientzia horiek. Modu batean edo bestean, **GUZTIOK** izaten ditugu **bihozkadak** (gaztelaraz **“premonición”**), **sinkronizitateak** eta **beste hainbat eta hainbat esperientzia bitxi edo arraroak**, baina beste kontu bat da horiek onartzeko eta jasotzeko prest gauden edo ez. Eta ez da adinaren kontua, izan ere, haur, gazte, heldu, zein adinekoei gertatzen baitzaizkie esperientzia bitxi eta anitz horiek.

Halaxe, hori guztia buruan genuela, sukaldetik logelara joan ginen. Lo gelan geundela, ohearen gainean eseri ginen eta 2017ko maiatza hartan, bizi genuen esperientzia batez gogoratzen jarri ginen. **Esperientzia hura sekulakoa izan zen, benetan harrigarria**. Ordutik ez gara lehengoak. Esperientzia hari esker, garbi gelditu zen gizakiok ez garela 5 zentzumenez baliatzen den gorputz fisiko harrigarri bat bakarrik, kontzientzia zabal-zabala duen energiako “izaki” batzuk baizik, hau da, espiritua dugula. Orain, beste modu batean ikusten eta bizitzen dugu bizitza. Eta modu sakon eta zabalago batean ulertzen dugu gure antzinako arbasoek bizitzarekiko zuten ikuspegia. Gizaki haientzat ama lurra-ren altzoan zegoen guztia sakratua zen, guztiak zuen espiritua eta guzti-guztia loturik zegoen energia sakratu horri esker.



Egungo Mendebaldeko gizarte-ereduan murgildurik dagoen gizakiarentzat, aldiz, ikuspegi hori fantasia hutsa da eta ama lurra, kutsatu, suntsitu, erosi ... daitekeen planeta bat besterik ez da eta **oso oker gabilta**.

Mundu osoan gertatzen diren milioika esperientzia harrigarri eta ezberdinen ozeano zabalak, egunetik egunera, gero eta ageriago uzten du kontzientzia zabal-zabala duen energiako “izaki” batzuk garela, eta hori ez dela fantasia hutsa. Horra hor, benetan harrigarriak diren eta irakurtzea merezi duten bi bizipenak:

“La PRUEBA del CIELO” Eben Alexander neurokirurgialariak idatziriko bizipenak eta **“Morir para ser Yo”** Anita Moorjani Hong Kongen bizi den emakume indiarren bizipenak. Eta ezin ahaztu, Pim Van Lommel, kardiologo eta zientzialari holandesa. Honek, **The Lancet**, barne medikuntzako aldizkaririk garrantzitsuenean, **Heriotza mugako esperientziei (HME) eta kontzientzia zabal horri** buruzko ikerketak argitaratu zituen.

Bada gogoetara etorri zaigun esaldi bat, Brian Weiss, *izeneko mediku eta psikiatra estatubatuar*ak esana: **Gu giza esperientzia bat bizitzen ari garen izaki espiritualak gara (“Somos seres espirituales viviendo una experiencia humana”).**



Beraz, Mixel Labéguerieren abestiak dioen bezala, bada garaia, Mendebaldeko gizarte-ereduan murgildurik bizi garen gizakiok, **Xoriei, errekari, oihaneko zuhaitzei, zeruko izarrei eta haizeari mintzotzeko eta ama lurra benetan errespetatuko duen gizarte bat eraikitzeko.**

■ Ainhoa Jauregi Otaño





GFA

Oilategitik
www.oilategitik.net

Datorren urtera arte!



ALKIZAKO KABIA GUNEA



*Ez duzu oraindik Kabia ezagutzen?
Zatoz, bada! Plazan duzu, frontoi ondoan.*